

Biarritzko baleta

Espaloia bete zuen atzo Junior taldeak
KULTURA, 20-21

Aloñak lidertza sendotu du 0-3 irabazita

UDAk Zestoan 1-2 irabazita bigarren postua eskuratu du
KIROLA, 12-13

Lower Class Brats

Texasko punka ekarri dute gurera
KULTURA, 24

ASTELEHENKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko martxoaren 13a • 3. urtea • 93. zenbakia • 0,90 euro

Euriteak lur-jauziak eta zirkulazio arazoak eragin ditu gurean

Aretxabaletako saihesbidean gertatu ziren zirkulazio arazo handienak, itxita egon zen- eta zapatu osoan

Ibarrean ibaiak ez dute gainezka egin, baina asteburuko euriteak zirkulazio arazoak eragin ditu.

Gehienak garrantzi txikikoak izan badira ere, lur-jauziak izan dira arazo iturri handiena gurean, 24 izan dira. Zirkulazio istripuen kasuan bi gertatu dira asteburu osoan, eta biak txapazkoak. Adituen esanetan, eguraldiak hobera egingo du asteon. **5**

24 ORDU ATERTU BARIK

Bergaran metro koadroko 74 litro ur bota zuen eta Arrasaten 60; ibaiak nabarmen egin zuten gora

TENPORA GARAIA

Udaberriak denetik emango duela iragartzen dute tenporek; euria, eguzkia eta, batez ere, haizea



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Garaipenik gabe itzuli dira Leioatik

Mugarri Alkesak 3. jarraitzen du, igoera postuetatik bi puntura **15**

Mari Carmen Gallastegi Bergarako ekonomistak Euskadi saria irabazi du **5**

Gaurkoa behin betiko bilera izango dela uste dute Gameikoek

Ugarkaldeko etxebizitzentzozketa

Barikuan egingo dituzte zotz babes ofizialeko lehenengo 75 etxebizitzak **8**

Gaur, astelehenena, batzartuko dira berriz hiru aldeak –gutxieneko bi akziodunak, Fagor Arrasateko ordezkarria eta langileek izendatutako ordezkarri Rafa Gomez–, eta langilek uste dute behin betiko ia izango dela batzar hori.

Langileek egubakoitzeko batzarraren ostean jakin zutenez, gutxieneko bi akziodunek jaitsi egin dute akzioengatik eskatzen zieten kopurua –180.000 euro akzioen %6,78engatik–. Bestalde, Gameiko langileek azaldu dute eurek igo egingo dutela eskaintza. Eta ‘gainesfortzu hori arazoari behin betiko irtenbidea emateko eta gure lanpostuei eusteko ahalegina’ dela gehitu dute. **5**



JOSEKO ARANTZABAL

ARETXABAleta-ARRASATE SAIHESBIDEA 10 ORDUZ ITXITA

Debagoinari dagokionez errepideetan sortu ziren arazo larrienak. Hain zuen, zapatu goizean gertatu zen irudian ikusten den lur-jauzia. Hala, Aretxabaleta-Arrasate saihesbidea 10:00etik 20:30era egon zen itxita. Ez zen lur-jauzi bakarra izan, baina bai garrantzitsuena; egun berean beste 23 gertatu ziren Debagoinean.

GEUREAN

- 57 postu izan ziren Arrasaten emakume baserritarren azokan | 4
- Mari Karmen Gallastegi berigarra rakk 2005eko Euskadi saria jaso du | 5



Josune Azula
Zabalotegi Bizirik
taldeko kidearekin
aritu gara egin
duten protestaz | 7

KOMUNIKALDIAK HUHEZI-N



Enpresa arduradunek, ikasleek, hedabideetako profesionalek eta komunikazio agentzietako profesionalek jarraitu zituzten HUHEZIko jardunaldiak.

LARRAITZ ZEBERIO

JARDUNALDIK | 130 LAGUN BAINO GEHIAGOK LANDU DUTE KOMUNIKAZIO KORPORATIBOA

Komunikazioa ezinbesteko erreminta estrategikoa da enpresendako

Hori izan zen HUHEZIko jardunaldietatik atera zen ondorio argiena; asko izan ziren mezu hori komunikazioaren adituengandik jaso zuten enpresaburuak

Larraitz Zeberio

Komunikaldiak egin ziren bari-kuan Eskoriatzan, HUHEZIko Informazio eta Komunikazio Departamentuak (IK) komunikazio korporatiboa lantzeko antolatutako jardunaldiak, hain zuen ere.

Bost hitzaldik eta mahai inguru batek osatu zuten lehenengo jardunaldiak egitaraua. Komunikazio korporatiboa

esperientzia handiko profesionalak joan ziren HUHEZIra eta beren lan esperientzia azaldu zuten 130 bat lagunen aurrean.

KOMUNIKAZIOAREN GARRANTZIAZ

Hizlari guztiak bat etorri ziren: komunikazioa erreminta estrategikoa da enpresen jardueran, eta horretaz jabearazi nahi izan zituzten entzuten zituzten enpreseko alorreko arduradunak, komu-

nikazioaren profesionalak zein ikasleak. "Zoritzarrez, enpresa asko dago oraindik ere komunikazioa planifikatzen ez dutenak edo komunikazioaren garantziaz eta ezinbestekotasunaz kontraturu ez direnak", esan zuen hizlari batek baino gehiagok.

Enpresa guztien helburua etekinak lortzea da. Gaur egun, ordea, enpresek ez dute beren merkatu partea lortzen produktua soiliak saldua. Erakunde zein enpresei gizartearekiko konpromisoa ere eskatzen zaie gaur egun. Ideiak zein balioak ere transmititu behar dituzte, hortaz.

Adituek adierazi zutenez, merkatu gero eta globalizatuago honean enpresa batentzat ezinbestekoa da besteengandik bereiztea, eta hori lortzen da komunikazioa plangintza onaren bidez.

Komunikazioa, ordea, esparru zabala da eta kontuan hartu beharrekoak dira barne komunikazioa, irudi korporatiboa, harreman publikoak, eta abar.

Merkatu gero eta globalizatuagoan enpresek bereiztea lortu behar dute

Ideiak eta balioak transmititzuz lortzen dute hori enpresek. Produktua saltzea ez da jada nahikoa

ANTOLATZAILEAK POZIK

130 lagunek jarraitu zituzten barikuaren komunikazio korporatiboa lantzeko HUHEZIko lehen jardunaldiak. 79 lagunek jarraitu zituzten hitzaldiak bertatik bertara eta HUHEZI zein Eteoko 50 ikaslek, berriz, beste areto batean jarritako bideo emanaldi bidez.

"Genituen aurreikuspenak gainditu egin dira", adierazi zigun jardunaldiak amaieran HUHEZIko IK Departamentuko Aitor Zuberoigotia. "Gaiari buruzko ikuspegi orokorra ematea zen gure helburuetako bat eta lortu dugulakoan gaude. Goizean jende asko etorri da, arratsaldean gutxiago. Beharbada datorren urteari begira programa ez hain trinkoa egiten saiatu beharko dugu".

ROBERTO VAZQUEZ | LANA KOOPERATIBAKO MERKATARITZA ZUZENDARIA

"Balio berriak erantsi nahi dizkiogu gure markari"

L.Z.

Oñatiko LANA kooperatiba eredu gisa aurkeztu zen komunikazio korporatiboari buruzko jardunaldiaren. Goitik behera aldatu berri dute LANAn euren irudi korporatiboa.

Ahalegin handia egiten ari zarete zuen irudi korporatiboen alda-ketan. Zergatik?

Plan Estrategikoa lantzen hasi ginenean azterketa egin genuen eta konturatu ginen gure bezeroek kooperatibari buruz zuten irudia eta guk geuk transmititu nahi genuen irudia ez zeto-zela bat. Horregatik erabaki genuen gure irudi korporatiboa gehiago lantza.

Ze arazo ikusten zenioten, bada, bezeroek kooperatibari buruz zuten irudiari?

Konturatu ginen publikoak ondo identifikatzentzituela gure produktua, bere kalitatea eta guk eskainitako zerbitzuaren kalitatea, baina beste balio batzuk ihes egiten zitzazkin. Esaterako, gure kooperatiba izaera. Gure antolakuntza, langileen arteko harremana, bezeroekiko hartu-emana... Nortasun berezia ematen digu kooperatiba izaera horrek eta hori nabarmendu nahi izan dugu irudi korporatiboa berriaren eraikuntza honetan.

Zeindar aldaketa honekin eman nahi duzu irudia?

LANAk, gehienbat, markari eman nahi dio balioa. Markari-ridi hori ondo garatzeko ezau-garri konkretu batzuekin hornitu behar dugu, nortzuk garen eta nola lan egiten dugun ondo adieraziko dutenak. Eraikuntzaren sektorean posizionatu nahi dugu, hori da gure lan-eremua. Baina posizionatze horretan gure mar-ka korporatiboari beste adierazgarri batzuk erantsi nahi dizkiogu. Hala nola, gizatasuna, kooperazioa, partaidetza, ingurumenarekiko errespetua, bezeroekiko konpromisoa, gizar-tearekiko erantzukizuna...

"Konturatu ginen publikoak ondo identifikatzentzituela gure produktua; ez, ordea, enpresa bera"

"Ondo azaldu behar zaie irudi korporatiboen aldaketa bezeroei zein langileei"

Asmo horiek guztiak nola betetzen dira eguneroko zuen jardunean?

Esan beharra dago komunikazio prozesu honetan sartu berriak garela, baina argi dago aldaketa nabariak eragin dituela dagoeneko gure eguneroko jardunean, eta maila askotan, gainera. Komunikazio plana egitea izan zen gure lehenengo ardura. Orain, plan horretan finkatutako helburuak betetzen lagunduko dizkigutenek egiten ari gara. Lehenetariko ekintza logoa modernizatzea izan zen. Kolore korporatiboak aldatu egin ditugu, baita logoa bera ere. Katalogo korporatibo berria egin dugu, langileen lanetako arropa berritu dugu, webgunea egokitzen ari gara...

Aldaketa horiek guztiak nola har-tzen dituzte bezeroek?

Ez dugu irudi aldaketa egun batetik bestera egin. Bezeroak, normalean, adi egoten dira horrelako aldaketen aurrean. Bezero-ari zertan zabiltsan ondo azaltzea ezinbestekoa da. Horretarako, Oñatiko gure plantara gonbidatu genituen estatu mailako gure 50 bezero garrantzitsuenak. Ekin-tza eraginkorra izan zen, bezeroak etxera ekarri eta nortzuk garen eta nola lan egiten dugun erakutsi genielako. Horrela, normaltasun osoz hartu dituzte aldaketok.



Vazquezek LANA kooperatibaren esperientzia azaldu zuen komunikaldietan.

Oso kontuan hartu beharreko beste publiko bat etxekoira bertakoia da, langileak. Askotan horrelako aldaketen aurrean errezelo handiena duen publiko da. Historikoa den logotipo bat aldatzea edo egun batetik bestera laneko arropa berriak jan-

tzi behar dituztela esatea ez dute beti ondo hartzen. Bilera ugari egin ditugu komunikazio plan berria langileen artean ere ondo hartua izan dadin.

Lanasko gelditzen zaizue oraindik?

Irudi korporatiboa beti zaindu behar da. Ez dago amaierarik.


• EUSKAL ENPRESAK KONTURATU EGIN DIRA KOMUNIKAZIOAREN GARRANTZIAZ ETA EZINBESTEKOTASUNAZ?



EDUARDO GARTZIA MATILLA |
CORPORACION MULTIMEDIA



ANA URKIZA |
DEUSTUKO UNIBERTSITATEA



PEDRO RODRIGUEZ |
MICHELIN ENPRESA



JUANJO BRIZUELA |
AZK KOMUNIKAZIO AGENTZIA



JESUS GINTO |
MCC

"Komunikazioa ondo planifikatu behar da; gestioaren parte behar du"

Enpresak ez dira horretaz guztiz jabetu. Joera, oro har, komunikabideetan ahalik eta gehien agertzea izan da. Komeni izan ez zai-gunean, berriz, isiltzea. Gizarte globalizatu berri honetan, ordea, isiltasuna ez da errentagarri eta isilik egotea, jadanik, ezinezkoa da. Komunikazio plan ona izatea ezinbestekoa da.

"Produktuak saltzeko garaia pasa zen; enpresek balioak ere saldu behar dituzte orain"

Urteak daramatzagu komunikazioaren garrantziaz hitz egiten. Kontua da enpresek emaitza neurgarriak eskatzen dizkigutela eta oraindik ez gaude gaituta neurgarri horiek eskaintzeko. Komunikazio politika batek nortasun propioa ematen dio enpresa bat eta bere merkatu partea irabazteko aukera.

"Lehiakorra izan nahi duen enpresa batek ezinbestekoa izango du komunikazioa"

Enpresa guztien helburua etekinak lortzea da eta komunikazioak gure enpresa besteengandik bereizteko balio du. Gero eta enpre-sa gehiago ari dira komunikazio-estrategiak lantzen. Garrantzitsua da enpresak ematen duen irudia, baina baita bere barne komunikazioa ere. Langileak harro sentitzea ezinbestekoa da.

"Enpresa bakoitzak neurtu behar du komunikazioaren ezinbestekotasun hori"

Komunikazio-estrategiak ezin-bestekoak dira, baina modu eraginkorren erabilten baditugu. Enpresa bakoitzaren tamaina eta beharren arabera finkatu behar da ezinbestekotasun hori. Kooperatiben artean gero eta gehiago dira komunikazioaren onurak barneratu dituztenak, eta emaitzak lortzen ari gara.



Zapatuko azokan saltzaile lanetan aritu zen Arrasateko emakume baserritar talde bat.

Emakumeek egindako produktuak protagonista

Denetariko produktuak egon arren, jendea ez zen eguerdira arte hurbildu, eta zerikusi handia izan zuen horretan eguraldiak

Larraitz Zeberio

Seber Altuben egin dute aurten Arrasateko emakume baserritar eta artisauen azoka. Zapatuko goizean egin zuten eta saltzaileek 57 postutan ipini zituzten ikusgai etxetik eramandako produktuak. Askotariko produktuak ikusteko eta erosteko aukera izan zen. Hainbat txokotatik etorritako emakumeak aritu ziren saltzaile lanetan; tartean Arrasateko 11 baserritar eta bi artisau.

POSTU ETA LEKU GEHIAGO

Iaz baino postu gehiago egin da Emakume Kontseiluak urtero antolatzen duen azokan; zazpi gehiago, hain zuzen. Lekua bera ere aurreko edizioetan baino handiagoa zen, Seber Altuben herriko plazan baino espazio handiagoa aurkitu dutelako saltzaileek. Azokak, zoritzarrez, ez zuen eguraldia lagun izan eta inor gutxi hurbildu zen plazaera eguerdi aldera arte. Antolatzaileak, baina, pozik agertu dira kokapen aldaketarekin.

Azoka datutan

• 57 POSTU

57 postuk osatu zuten azoka. Tartean, Arrasateko 11 baserritar, bi artisau eta Ekin Emakume taldeko talogileak.

• POSTUEN JATORRIA

Nafarroa, Araba, Bizkaia, Errioxa eta Asturiastik etorri ziren gainerako 43 saltzaileak.

• SALGAI ZEUDENAK

Barazkiak, txorizoak, odolkiak, eztia, pastelak, ogia, txokolatea, lore-lehorra, bitxiak, larruzko pilotak, egurrezko jostailuak...

Gaztetxearen iragana, oraina eta geroa berbagai

10. urteurrena ospatzeko ekintzen barnean berbaldia egin zuten barikuau. Elgetako gaztetxeen

Geaxi Ezpeleta

Gaztetxearen X. urteurrena ospatzeko prestatutako egitarauaren barnean, barikuau berbaldia egin zuten. Gaztetxearen 10 urteko ibilbideaz jarduteko egin zuten hitzordua, eta jende ugari gon-

bidatu zuen Gazte Asanbladak, batik bat hamar urteotan gaztetxearekin harremana izan duten kideak. Hala, 30 pertsona batu ziren, eta gaztetxearen iraganaz, orainaz eta geroaz berba egin zuten.

Gazte Asanbladaren sorreratik hasi, estatutuen eraketak pasatu, eta okupazioaren erabakira arteko bidea izan zen lehenengo mintzagaia. Gero, gaztetxearen funtzionamendua eta momentu bakoitzean batzarrak jarraitu dituen printzipio eta helburuak jorratu zituzten. Zuketako, etorkizunaz jardun zuten.

USTE ZENA BAINO LUZEAGO

Iluntzeko hamarrak inguruan hasi eta goizaldeko ordu biak pasatxora arte luzatu zen tertulia. Anekdotak, eztabaideak eta giro atseginak denborari erreparatzeko betarik ez zien eman gaztetxeen bildutakoei. Antolatzaileek esan digutenez, "tankeera horretako berbaldiak oso aberresgarriak dira gaztetxearentzat eta baita norberarentzat ere". Balorazio positiboa egin zuten bertaratutakoek.

10. urtemuga datorren asteburuan ospatuko dute: egun osoko egitaraua prestatu dute.

MUk lortu nahi du datozen lau urteotan ikasleen %100 lan esparruan sartzea

MU 2010. urtean erreferentziazko euskal unibertsitatea izatea nahi dute, Oliveri errektoreak egubakoitzean azaldu zuenez

M.B.

Mondragon Unibertsitateak berritu egingo du 2010erako estrategia plana, unibertsitate eredu jakin baten oinarriak finkatzeko. Eta horren guztiaren berri emateko prentsurreko egin zuen Oliveri errektoreak egubakoitzean trebakuntza eta gizartearen premiak.

Hori horrela, bost dira 2010eraiko finkatu dituzten estrategia helburuak: hezkuntza eredua garatzea; unibertsitatearen, enpresen eta erakundeen arteko harremana; espezializazioa, irakasleen trebakuntza eta nazioartekoetza.

Greba egunean Ertzaintzak izandako jarrera salatu dute Aretxabaletan

M.B.

Aretxabaletako ezker abertzaleak eguneko greba eta mobilizazio egunean "Ertzaintzak izandako jarrera" salatu zuen egubakoitzean egindako prentsurrekoan.

Istiluok 12:00etako elkarreta ratzean gertatu ziren, ehun bat herritar plazan batuta zeudela. "Dispersioaren aurka eta konponbidearen alde agertzea zen han batu ginenon asmoa, baina 12:20 aldera ertzainak agertu ziren eta hor bukatu zen ordura arteko lasaitasuna", azaldu zuten. Gehitu zuten, "ertzainak pankartan zegoen kide bat identifikatzen saiatu ziren

eta guk lasai eta kalterik eragiten ari ez ginela esan arren, jaramonik egin ez eta kidea atxilotzen hasi ziren". Horren aurrean jendeak protesta egin zuela azaldu zuten eta "ertzainak gomazko pilotekin eraso egiten" hasi zirela; "berba egiten saiatzea baino errazagoa izan zen haiendako jendea indarrez beldurtzea", salatu zuten ezker abertzalekoek. Bestalde, "ulertezina" egiten zaie "Ertzaintzak zergatik agertzen duen jarrera hori" eta gertatutakoaren arduradunei eskatu zieten "jarrera aldatzeko eta konponbidearen alde egiteko". Horrekin batera, gertatutakoaren erantzule zuzena EAJ alderdia dela gehitu zuten.



Hamar urteotan gaztetxetik pasatu den jendea batu zen berbaldian.



Euritearen ondorioz Deba ibaia asko hazi zen, baina ez zuen gainezka egin. Goian Bergarako Bideberri aldea.

Asteburuko euriteak trafiko arazoak eragin ditu gurean

Debagoienean lur-jauziek eta ur putzuek eragin dituzte arazo larrienak; zapatuan itxita egon zen Aretxabaletako saihesbidea

Larraitz Zeberio

Euri asko egin du asteburuan, eta Debagoienean ere euriteak hainbat arazo sortu ditu. Gurean ibaiek ez dute gainezka egin, baina ur putzuek eta, batez ere, lur-jauziek zirkulazio arazo ugari eragin dituzte. Zapatuan soilik 24 lur-jauzi eragin zituen euriteak Debagoienean. Maila txikikoak gehienak.

Aretxabaletako saihesbidean sortu ziren zirkulazio erretentzio handienak. Lur-jauzi baten ondorioz ia egun osoan egon zen moz-

tua GI-627 errepidea: 10:00etatik 20:30era, hain zuzen ere.

Ur putzu handi bat izan zen arazo, berri, Aretxabaleta eta Arrasate arteko errepide zaharrean. Zirkulazio arazoak handiak izan bazi-

ren ere, ez zen ezbehar larririk gertatu eta egunean zehar txapazko bi istripu besterik ez zen izan.

Egoerak nabarmen egin zuen hobera hurrengo egunerako, baina lur-jauzien ondorioz domekan ere egon zen arazorik errepideetan. Goizetik errei bat mozta egon zen Kanpanzarko bidean, baita Oñatiko errepidean ere.

ASPALDIKO EURITERIK HENDIENA

24 orduan euri asko egin zuen. Bergaran metro koadroko 74,3 litro ur bota zuen eta Arrasaten, berri, 60. "1983 eta 1988. urteetako uholdeen ondotik gogoratzan dudan euriterik handiena izan da honakoa", adierazi digu Luis Maria Agirre bergararrak.

TENPORAK

Eguaztenera arte iraungo dute temporek, baina Arantzazuko Pello Zabala fraideak aurrerapen txiki bat egin digu: "Pentsa daiteteke udaberriak aurtengoan denetik emango digula. Haizeak alde guztietatik jo du egunotan, euria ere izan dugu; eta nola, gainera! Bainan datozen hiru egunak politak izango dira".

Gaurko bilera behin betikoa izango dela diote Gameikoeek

Langileek igo egin dute eskaintza ekonomikoa; eta bi akziodunek, berri, jaitsi

Monika Belastegi

Arrasateko Gamei enpresako langileek igotzea erabaki dute gutxiengoko bi akziodunei, akzioen %6,78ren jabe diren Eduardo eta Mari Carmen Etxebarriari, egindako eskaintza eko-

nomikoa. Iñaki Zabala Gameiko enpresa batzordeko lehen-dakariaren esanetan, "gainesfortzu" hori "arazoari irtenbidea emateko eta gure lanpostuak mantentzeko" ahallegina da. Euren poltsikotik aterako da diru hori, eta Zabalaren esanetan, "kopuru garrantzitsuez berba egiten ari gara".

AKZIODUNEK JAITSI EGIN DUTE KOPURUA

Zabalak gehitu duenez, egubakoi-ko negoziazioen ostean –gutxiengoko bi akziodunek, Fagor Arrasateko ordezkarriak eta langileek

izendatutako ordezkarri Rafa Gomezek hartu dute parte– jakin izan dute bi akziodunek ere jaitsi egin dutela akzioengatik eskatzen zuten kopurua (180.000 euro eska-ten zituzten).


Gaur, astelehenena, batzartuko dira berri, hiru aldeak eta langileek uste dute behin betikoa izango dela batzar hori: "Jaitsi egin dute hasierako eskaria eta gu gurea igo-ko prest gaude; hortaz, azkeneko batzarra izan daitekeela uste dugu eta kontua behin betiko konpondu. Hala ez balitz dagoeneko ez luke izenik izango gertatzen ari denak", aitortu du Zabalak.

Mari Carmen Gallastegik irabazi du Euskadi saria

M.B.

Mari Carmen Gallastegi ekonomista bergararrak irabazi du 2005eko Gizarte Zientzen eta Humanitateen Euskadi saria. Ekonomia Azterketaren oinarrrietan katedraduna da Mari Carmen Gallastegi Euskal Herriko Unibertsitatean, eta sari hori eskuratzent duen lehenengo emakumea.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Departamentuaren arabera, epaimahaia nabarmendu ditu Gallastegik inguru ekonomian egindako ekarpenak, batik bat, arrantzara aplikatutako eredu bioekonomiko-en gainean egindako lan aitzindariak. Horrekin batera,



Mari Carmen Gallastegi.

bergararrak jorratutako beste ikerketa arlo batzuk ere nabarmendu dituzte: euskal kontzertu ekonomikoaren inpakta eta Europaren sartzeak Euskadiaren ekonomiarentzako izan duen garrantzia, esaterako.

Hilaren 29an emango dio saria (36.000 euro) lehendakariak.

• OÑATIKO ANTTON TABERNAKO LEHIAKETA



ASTELEHENKO GOIENKARIA

BI LAGUNEK ASMATU DUTE LAU 'GIZENEN' PISUA

Bi lagunek asmatu dute Ostegun Gizen egunean Oñatiko Antton tabernan atera zuten argazkiko lau *'gizenak'* zein diren eta zenbat pisatzen duten. Bizkarrez ageri zen argazkian laukotea eta lehiaketan parte hartu duten bederatzi lagunetatik gehienek *'gizena'* izena asmatu duten arren, Lurdes Igartua eta Bernardo Zurutuzak bakarrik asmatu dute pisua: 455 kilo lauren artean.

• SAIOA ALTZUA ETA GAIZKA AZKARATERI ONGIETORRIA



JOSETXO ARANTZABAL

TXALOEKIN HARTU ZITUZTEN HERRIKO PLAZAN

Egubakoitzean egin zieten Saioa Altzua eta Gaizka Azkarate pre- so ohiei ongiotorria, Arrasaten. Bi urte baino gehiago kartzelan egin ostean, Saioa Avilan eta Gaizka Madrilen, biek 30.000 euro ordainduta irten ziren orain dela bi aste, baldintzapeko askatasunen. Herritarren elkartasuna eta txaloak jaso zituen bikote-ak ongiotorrian eta horren ostean manifestaldia egin zuten.

ESKORIATZAKO LUDOTEKA | EGUBAKOITZEAN INAUGURATU ZUTEN LOKAL BERRIA. BEREHALA ZIREN HAN HAURRAK JOLASTEKO IRRIKAN



JON BEREZIBAR

Jostailu berriak ikusteko irrikan zeuden haurrak.

Haur eta gaztetxoei zuzendutako eskaintza sendotu gura du Udalak

Arlo horretan, Gipuzkoako Aldundiko Gaztedia zuzendariak eredugarritzat jo du Eskoriatzako Udalak egiten dabilen lana

Jon Berezibar

Egubakoitza ezkero Eskoriatzako neska-mutikoek euren zerbitzura daukate Tortolis ludoteca berria. Santa Ana kalean dago lokal berria eta astelehenetik zapatura bitartean egongo da zabalik 3 eta 12 urte bitarteko haurrendako, bi txandatan. Inaugurazioa egin eta, gainera, jolasparkea ipini zuten arratsaldean pilotaleku, haurrendako.

Guztira 46.000 euroko inbertsioa egin du Udalak egokitze lanetan eta 6.000 euro altzari eta jostailuetarako bideratu ditu. Horietatik 15.000 euro Aldundiak

ipini ditu eta haren ordezkarri moduan hantxe izan zen Joxe Intsausti, Foru Aldundiko Gaztedia zuzendaria. Horren harira, Juan Carlos Bengoa alkateak Gaztedia zerbitzua abiarazteko orduan egindako elkarlana esker-tu zion Diputazioari, eta Gaztedia zuzendariak "eredugarritzat" jo zuen Udalak arlo horretan egindako lana. Biek hala biek ludoteca berriarekin programa eta ekintza aberasgarriak antolatzeko asmoa agertu zuten. Jarraian haurrekin egindako lan hori nerabe eta gaztetxoei egi-ten hastekoak direla ere adierazi zuten aurkezpenean.

LUDOTEKA "BIZIA"

Ludoteca "bizia" izatea da asmoa, Gazte teknikari Maider Etxanizek adierazi bezala. Horretarako, ohikoaz gain, zapatuetan zerbitzu bereziak antolatuko dituzte ludotekan; besteak beste, jostailuen maileguak eta gurasoekin batera egingo dira ekintzak. Horietako bat datorren zapatuan egingo dute: pastel lehiaketa. Gurasoei zuzendutako hitzaldiak eta jarduerak ere egingo dituzte.


Aste barruan, berriz, bi txandatan antolatuko dituzte haurrak. Lehenengoan, 16:30etik 18:00etarako, 3 eta 6 urte bitarteko haurrak joango dira eta bigarrenean, 19:30ak arte, 7tik 12 urteko erabili ahal izango dute ludoteca. Zerbitzua erabili ahal izateko izena emanda egon behar da, eta ludotekan bertan egin ahal izango da izenematea.

• GUSTATU ZAIZUE LUDOTEKA BERRIA?



AURITZ ETA EDURNE | 9 URTE

"Ondo dago, batez ere eguraldi txarrarekin bertan jolas egin daitekelako"



MIKEL ETA OSKAR | 11 URTE

"Puzgarrietan batetik bestera egingo dugu arratsaldea gaur"

Ludoteca berria ezagutzeko denborarik hartu gabe zuzenean joan ziren mutikoak puzgarrietara, "Arratsalde osoa egingo dugu hemen jolasean eta agian geroago joango gara ikustera". Momen-tuz euren interesa puzgarri eta jolasetan bakarrik zegoen.



LEIRE ETA ARANE | 7 URTE

"Jolasteko eta lagunekin egoteko lekua da ludoteca. Lehen, zaharrera joaten ginan, baina orain gehiago ibiliko gara"

Gune batetik bestera arineketan ibili ziren Leire eta Arane egubakoitzean. Hona ludotekari buruzko iritzia: "Kolore asko eta jostailu ugari ditu ludoteca berriak eta asko gustatu zaigu. Lehen ere joaten ginan zaharrera, baina orain gehiago joango gara. Jostailuekin ibili eta lagunekin egoteko lekua da, eta askotan joan izan gara. Gauza berri guztietatik panpinak eta sukaldea gustatu zaizkigu gehien".


• POLITIKARIEK LOKALA INAUGURATU BEZAIN LASTER ESTREINATU ZITUZTEN HAURREK JOSTAILUAK



LUNCHA NAGUSIENDAKO. Udal ordezkariek eta Aldundiokoek herrian haur eta gazteei zuzendutako zerbitzua sendotzen dabilea aipatu zuten aurkezpen ekitaldian. Inaugurazioa egin eta gero luntxa egin zuten arduradunek.



NEKATU BARIK. Puzgarriak eta jolasak ipini zituzten pilotalekuaren neska-mutikoendako. Haurrez joski zen berehalala Eskoriatzako pilotalekua eta ez zen istilurik falta izan puzgarrietarako ilaretan txanda-pasekin.



JOLASA ETA HEZKUNTZA. Aisialdirako aukerak eskaintzeaz gain, haurren heziketarako proposamenak egin gura ditu ludotekak. Horregatik, ohiko jolasak eta hezigarriak aurkitu ahal izango dira Eskoriatzako ludotekan.

Zabalotegiko auzotarrek manifestazioa egin zuten zapatuan. Koldo Eleizaldekoak eta Bolukoak ere batu zitzazkien eta baita beste hainbat herriar eta Bergara Aurrera,

Ezker Batua eta PSEko ordezkariak ere. Kalearen erditik egin nahi dieten errepideagatik protestan atera ziren kalera. Proiektu hori herriko hainbat "jauntxoren"

interesen onurarako dela uste dute. Bergarar guztien bizi kalitate hobearen aldeko apustua egiten dute, eta hala adierazi zuten herriko kaleetan.

JOSUNE AZULA | ZABALOTEGI BIZIRIK PLATAFORMAKO KIDEA

"Errepidea guretik pasatuko da hiru etxebizitza-gune eraikiko direlako gertu"

Monika Belastegi

Manifestazioa egin zenuten zapatuan. Zergatik?

Gure auzoa zeharkatuko duen eta Bolu auzoraino iritsiko den errepidea egin nahi dutelako, eta guk ez dugu horren beharrik ikus-ten. Hori izan zen abiatu-pta, horixe defendatzen hasi ginen, baina eroan dugun prozesuaren ondotik zerbait gehiago ere bada defendatzen diharduguna gaur egun: guretako, Boluko auzoarrak, eta, oro har, herrirendako bizi kalitate hobea. Izan ere, errepidea egiteko ez dago pisuzko arrazoirik, interes urba-nistikoa baizik, luxuzko etxeak eraikitzeko interesa, hain justu. Eta hori gure ongizatearen gai-netik jarri dute. Kontratistik agintzen dute herri honetan eta berdin zaien guri kalte egitea.

Errepideak zein galera ekarriko liz-kioke zuen auzuneari?

Batik bat bizi kalitatea. Nahi-ko lasaia da, estua, eta Elosura-ko saihestidea bihurtuko litz-ateke. Uste dugu etxebizitzak ez daudela prestatuta trafiko hori guztia jasateko; izan ere, errepidearen maila berean daude lehe-nengo solairuak. Argi barik gera-tuko lirateke, kea sartuko litz-ateke... Ez dute inongo azterketarik egin jakiteko auzu-nea trafiko hori guztia jasateko prestatuta ote dagoen.

Azterketa da, hain justu, udalean egin duzuen eskarietako bat.

Bai. Auzunea trafiko hori har-tzeko prestatuta dagoen azter-tekiko eskatu dugu, beste alter-natiba batzuk jorratzea ere bai, eta baita justifikazio txostena ere. Azken baten, jakiteko zergatik behar duen herriak errepide hori. Beharrezko baldin bida, era-kitzeko modurik egokiena bilatu beharko litzateke. Baino beharrezko dela ez bida frogatzeko, ez diegu egiten lagako.

Oinezko ugarik erabiltzen duten gunea dela ere egin duzue aldarri.

Bai. Mariaren Lagundia ikas-tenetxera doazen umeek, euskalte-gira doazen ikasleek, auzokoek bertakoek... Horrez gain, Mizpi-ruale zaharren egoitza ere hemen dago.

Horrez guziaz gain, izuga-rria iruditzen zaigun beste gau-za bat da Errekalde parkearekin gertatuko dena. Parke publikoa da eta errepidea erditik pasatu-ko da. Eta hori gutxi balitz, Uda-lak saldu egingo dio lursail hori kontratista bati luxuzko etxeak egiteko parkearen barruan. Poli-tikariei ez dakit halako gauzak

ohikoak irudituko zaizkien, bai-na guri, herriar moduan izuga-rria iruditzen zaigu Udal batek herriar guztiona den ondarea kontratista bati saltza luxuzko etxebizitzak eraikitzeo.

Zuen auzoan errepidea egingo dutela jakiteko modua ere sus-magarria iruditu zaizue.

Inor ez zen gurekin harre-manetan jarri kontua azaltzeko. Bagenekein arau subsidiarioen aurrerapena zegoela, baina ez zein puntura arte afektatzen gin-tuen; izan ere, aurrerapenean ez da ezer garbirik agertzen. Errepidea eraikitzeko etxe bat bota behar zutela-eta batzarra egiteko dei egin ziguten Udaletik. Joan eta hantxe jakin genuen, oso azaletik, ze egiteko asmoa zuten. Bestalde, Udalak azalpen orri bat ere kaleratu zuen arau subsidiarioek ekarriko zituzten aldaketen gainean, baina Zaba-lotegi azaldu ere ez zen egiten. Uste dugu hori guztia herria ezjakintasunean edukitzeko asmo guztiarekin egin zutela. Esaterako, Errekalden etxebizi-zitzak egin nahi dituztela ez da inon jasotzen.

Horren guztiaren ondotik harremanetan jarri zarete Udalarekin. Zer erantzun jaso duzue?

Urtarrilaren 16an egin genuen batzarrerako lehenengo saiakera, eskaria idatziz aur-keztuta, baina ez ziguten eran-tzun. Hala, 30eko osoko bilku-ra joan ginen eta alkateak esan zigun oso ondo iruditzen zitzao-la gurekin batzartzea; oraindik zain gaude.

Alderdi politikoengana jo duzue gero.

Udalaren jarrera ikusita jo genuen alderdi politikoengana. Guztiak egin dugu berba eta guztiak eman digute euren babe-sa EAJk eta EAk izan ezik; EAJ-rekin eguztenean batzartuko



MONIKA BELASTEGI

Josune Azula Zabalotegiko kaltetuetako bat da.

gara eta EArekin egunean batzartu ginen.

Gainerako alderdien ustez, herriak baditu beste lehentasun batzuk eta Bolu auzoak ere bai. Izan ere, Udalak Boluko auzoarrak jartzen ditu aitzakia moduan Zabalotegi erditik errepidea egi-teko; Bolu auzoaren dako irten-bidea litzatekeela diote.

Arau subsidiarioen gaineko Ira-dokizunak ere aurkezu dituzue Udalean. Jaso duzue erantzunik?

1.400 sinadurak bermatutako iradokizunak aurkeztu genituen. Teorian, Udal iradokizunok azertzen ari da; hortaz, ez daki-gu ezer onartuko duten ala ez. Dena den, zalantza handiak ditugu. Are gehiago, kontuan izanda Hirigintza zinegotziaren jarrera EArekin egindako batzarrean. Ez dugu uste bide horretatik askorik lortuko dugunik. Gehiago sinis-ten dugu herriarrek egin deza-kezen presioan, eta horregatik nahi dugu herriarrek jakin deza-ten zein den arau subsidiarioen errealityatea, zein den benetako helburua. Izan ere, errepidea Zabalotegitik igarotzea kasuali-tatea da; beste edozein kaletatik pasa zitekeen baldin eta kontratista batek kale horretan etxeak egin nahi izan balitu. Halaxe esan zigun Hirigintza zinegotziak: "Zabalotegitik pasatuko da gertu daudelako eraiki nahi diren hiru etxebizitza-guneak, hots, Maria-

"Udalak ez badu frogatzen beharrezko dela, ez diegu errepidea egiten lagako"

"Errepidearekin hasi ginen, baina orain herritarren bizi kalitatea ere defendatzen dugu"

"Hirigintza zinegotziak esana da hiru etxe-guneak egin ezean ez zutela errepiderik egingo"

"Tristea da Udalen politika kontratistek egin nahi dutenari baldintzatuta egotea"

ren Lagundia, Errekalde parkea eta Iraburu". Gezurra esaten ari dira: esaten digute errepidea beharrezko dela, eta ez da horrela; behar dutena da luxuzko etxe batzuei sarbide onak egitea.

Hirigintza zinegotziak esan-da-ko da Bergaran etxebizitzak bai-no ez direla eraikitzen dirua behar dugulako, eta kontratistak direla dirua ematen dutenak. Triste da Udal baten politika kon-tratistak egin nahi duenari baldintzatuta egotea herritarren bi-zu kalitatearen aurretek jarrita.

Udalaren jarduteko moduarekin ez zaude konforme eta herritarrei horren berri emango diezue.

Herritarra informatu nahi ditugu honetaz guziaz eta orain-dik guzti antolatuta ez dugun arren batzar informatiboak pres-tatzen ari gara. Udalaren funtzio-namenduaz eta gestio txarraz in-formatu nahi ditugu. Bolu aldeko jendea ere ez dago batere pozik eta pentsatzen ari gara batu eta elkarre-bat eratzea lanerako, hor atzean dagoena azalera ekartzeko.

Albiste izango da

ARETXABAleta | 18:30ean izango da

**Arau subsidiarioak aldatzea
onartuko dute gaur osoko bilkuran**

Gaur, astelehena, ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzarrak. Hainbat gai eztabaidatuko dituzte, tartean bi hitzarmen: bata, Ortu-bos enpresa eraikitzairearekin sinatu beharrekoa eta bestea, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, aretxabaletarren gaineko informazioa jaso ahal izateko.

Arau subsidiarioak ere izango dituzte mintzagai osoko bilkuran; aldatzea proposatuko dute, hain justu, eta lehen urratsak emanago dituzte, gainera, hainbat lurri izendapena aldatu eta urbani-zagarri izateko.

OÑATI | 17:00ETAN KIROLDEGIKO PILOTALEKUAN

**Barikuan zozketatuko dituzte
Ugarkaldeko lehen etxe babestuak**

Hilaren 17an, egubakoitza, zozketatuko dituzte Ugarkaldeko babes ofizialeko lehenengo 75 etxebizitzak. Kiroldegiko pilotalekuau egingo dute zozketa, 17:00etan, eta Lourdes Idoiaga alkatea eta Sukia eraikuntza enpresako ordezkarriak egongo dira. Ekitaldiaren akta Oñatioko notarioak jasoko du. Kiroldegiko atea 16:30ean zabalduko dituzte eta 530 lagun sartuko dira egubakoitzean egingo duten zozketan.

Ugarkalden 300 etxebizitzaz eraikiko dituzte eta horietatik 210 izango dira babestutakoak. Lau fasetan eraikiko dituzte etxeok: bigarrenean babestutako 15 zozketatuko dituzte; 80 hirugarren fasean eta beste 40 laugarrenean.

OÑATI | EGUNETIK ZAPATURA EGONGO DIRA

**Lapurdiko 33 ikasle Oñatin izango
dira asteon, Elkar Hezik gonbidatuta**

Elkar Hezi ikastetxeko batxilergoko 1. mailako ikasleek elkar-trukea egingo dute Baionako Bernard Etxepare lizeoko ikasleekin. Hori horrela, bisitan etorriko zaizkie lapurtarrak egunean eta zapatura bitartean egongo dira Oñatin. Era berean, bisita itzuli diente oñatiarrei apirilean, 6tik 8ra bitartean, hain justu. Lapurditik 16 eta 17 urteko 33 ikasle etorriko dira eta Oñatin dauden bitartean Elkar Hezikiko ikasleek hartuko dituzte etxeen. Bestalde, hilaren 17rako egun berezia antolatu dute; izan ere, egun horretan Baionako eta baita Durangoko Ibaizabal ikastolako beste 30 gazte batuko zaizkie eguna elkarrekin emateko. Bernard Etxepareko eta Elkar Hezikiko ikasleen ikasturtean barrena jorratu dute hartu-emaña eta elkar ezagutzen hasteko aukera izan dute.

BERGARA | ASTEON BATZARTUKO DIRA

**Aranzadik hainbat sektorerengana
joko du Kilometroak 2007 dela eta**

Gipuzkoako Ikastolen Federazioak aste honetan eman dio Aranzadiri Kilometroak 2007 jaia antolatzeko behin betiko baimena. Urriaren lean jasoko du Aranzadik lekukoa, baina aurretek hasiko dira lanean. Asteon, esaterako, federazioko ordezkariekin eta herriko hainbat sektoreren batzartuko dira. Bestalde, irudia lantzen hasiko dira laster eta arropen salmenta antolatzeari ere berehala ekingo diote. 1991n antolatu zuten lehenengoz jaia Aranzadik. Hartan aldapatsua izan zen ibilbidea. Oraingoaz laua izango dela aurreratu dute.

ARRASATE | 150 HARITZ ETA 50 GAZTAINONDO

**200 zuhaitz landatuko dituzte
barikuan, Zuhaitz Egunean**

Herriko hainbat ikasle eta erretiratuk 200 zuhaitz landatuko dituzte egubakoitzean Garagartzan; izan ere, Zuhaitz Eguna ospatuko dute. Aurreko egubakoitzean egitekoak ziren landaketa, baina eguraldi txarra zegoenez iragarrita, astebete atzeratzea erabaki zuten Udaleko arduradunek.

150 haritz eta 50 gaztainondo landatuko dituzte. Haritzok Gain-tzurizketako haztegi batetik ekarri dituzte eta gaztainondoak, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak Urnieta duen beste haztegi batetik. Ingurumenarekiko harremana eta errespetua bultzatu nahi dituzte, besteak beste, halako ekimenekin.

Hitzorduak**TRIKI-POTEOA ETA KANTU AFARIA EGINGO DUTE BERGARAN |
Jardun elkarteak antolatu du, aurreko urteetako arrakasta ikusita**

Jardun elkarteak kantu afaria antolatu du Bergaran martxoaren 24rako, egubakoitza. Honako egitaraua prestatu dute: 20:00etan, triki-poteorako batuko dira Pol-Pol tabernan; 21:00etan, Artatse elkartearen afalduko dute; eta afalostean, kantu liburuxkak banatu eta Euskal Herriko kantuak abes-

tuko dituzte trikitilarien laguntzarekin. 25 bat euskal kanta ezagun batzen ditu liburuxkak.

Aurreko urteetan arrakasta izan du ekintza horrek, eta 50 bat lagun ibili dira. Aurten, zabalik dago izenematea. Jarduneko baziideek 16 euro ordaindu behar dute; gainerakoek, 19.

ARETXABAleta |**• Bullying-aren gaineko
berbaldia, gurasoendako**

Bullying-aren, nerabeen arteko jazarpenaren, gaineko hitzaldia egingo dute bihar, martitzena, udaletxeko ganbaran, 18:00etan. Udal Prebentzio Sailak antolatu du.

**• Sendabelarren gaineko
ikastarorako izenematea**

Sendabelarren inguruko ikastaroa izango da Bergaran maitzean. Oso leku gutxi geratzen dira. Izena emateko, jo kultura etxera. Argibideak: www.bergara.net edo 943 77 91 60 telefonoan.

culuma honako helbidera: junior@cim-idiomas.com.

**• Bizkaiera idatziaren
inguruko mintegia izango da**

Bizkaiera idatziaren inguruko mintegia antolatu du Topaguneak, eta izenematea zabalik dago hilaren 24ra arte. (94 475 16 18 da telefonoa).

ARRASATE |**• Gazte Informazio Bulegoak
webgunea estreinatu du**

Gazte Informazio Bulegoak www.gaztebullegoa.com webgunea ipini du.

**• Bigarren Hezkuntzara
pasatzearen gaineko hitzaldia**

*Lehen Hezkuntzatik Bigarren
Hezkuntzara pasatzea: guraso
soen artean kezkak partekatzea
eta orientabideak bilatzea* delako hitzaldia egingo du Txus Congil hezitzaileak gaur, astelehena, Monterronen, 18:00etan.

**• Parkinson eta gizarte
izeneko berbaldia**

Hitzaldi hori egingo du Asparagi elkarrekin etzi, eguztzena, Monterronen, 17:30ean.

**• 58ko kintoek ospakizuna
egingo dute apirilaren 1ean**

58ko kintoek, hau da, 1937an jaiotakoek, ospakizuna izango dute apirilean. Izena emateko, deitu Jose Riviereri (943 79 10 57) edo Pedro Fernández (943 70 02 48). 20 euro aurreratu behar da.

BERGARA |**• Txuliaketa-irteera egingo
dute Nafarroara**

Nafarroako El Cortijo lursailera txuliaketa (capea)-irteera antolatu dute martxoaren 25rako, zapatua. Egun osoko irteera izango da: abeltegi bat bisiatu, hamaitakoa, bazkaria eta txuliaketa egingo dituzte. Izenematea, Avenida kafetegian edo Ganbara tabernan, martxoaren 21a baino lehen. 60 euro da.

**• Gaztetxoendako hankapalo
eta txotxongilo ikastaroak**

Udal Kultura eta Gazteria Zerbizuek bi ikastaro horiek antolatu dituzte 11-17 urte bitartekoak. Izena emateko, jo kultura etxera edo deitu 943 77 91 59 zenbakira.

DEBAGOIENA |**• Udalekuetarako begiraleak
behar ditu CIMek**

CIM akademiak Euskadi osoran antolatzen ari den ingelesek osorak udalekuetarako begiraleak behar ditu. Bidali curri-

ESKORIATZA |**• Helduen Heziketa**

Ikastetxea inauguratuko dute Helduen Heziketa Ikastetxeak (EPA) lokal berria inauguratuko du datorren egubakoitzean, hilak 17, 12:30ean, Intxaustxuetako 14. zenbakian.

**• Aratusteen eta San Pedro
jaien antolaketaren gainean**

Aratuste jaiak baloratzeko eta San Pedro jaiak antolatzen has-teko, batzarra deitu du Udalak etzirako, eguztena, kultura etxeen, 18:00etan.

OÑATI |**• Gurasoendako hitzaldia
izango da Elkar Hezin**

Zigortzen eta saritzen jakitea delako hitzaldia izango da hilaren 16an, eguna, Santa Eskola ikastetxeen, 18:30ean.

**• Informazio Teknologien
Erabiltsaile ziurtagiria**

Informazio Teknologien Erabiltsaile ziurtagiria ateratzeko azterketak egingo dituzte gaur, astelehena, KZgunean, 11:00etan-13:00etara.



BERANGO

DEKORAZIOA, SUKALDEAK

LOGOS
ALTZARI INTEGRALAK

Q U 4 T R O

Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate

K Muebles
Kabía
4 URTE
interes barik
Altzariak

Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70



Iritziaik



Isilpekoak

943 25 05 02

goinenkaria@goinena.net

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• **Udaltzaina Miguel Altuna aurreko bidegurutzean**

Bergarakit idatzi digu irakurle batek. "Eguen goizean sorpresa atsegina hartu nuen Miguel Altuna aurreko bidegurutzean. Jakina da bidegurutze horretako semaforoan zenbat denbora egoten garen zain. Eguen goizean, aldiz, udaltzaina zegoen bidegurutze horretan eta nabarmen arindu zuen trafikoa bere lanak. Lastima eguerdian ez egotea. Egundoko ilarak sortu ziren".

• **Adarrak eta enborrak bide bazterretan**

Kanpanzarko bide bazterrak adarrez beteta daudela-eta kexatua da irakurle bat. "Joan zen asteko haize bolada handiek sekulako sarraskia egin zuten eta hainbat zuhaitz errrotik atera zituen. Beharginak ibili ziren errepideko bazterrak garbitzen, baina hantxe utzi zitzuzten enbor pusketak zein adar zatiak. Iruditzen zait arriskutsua izan daitekeela berriz ere haizea altxatzu gero. Nire eskaera bide bazterrak ondo garbitzea da".

• **Hotz dago Iturrieko kiroldegian**

Arrasatetik ere kexu da gure irakurle bat: "Astebururo joaten naiz Iturrieko partiduak ikustera eta itzela da kiroldegi horretan egiten duen hotza. Ezin daiteke ezer egin? Egia da laster epelduko direla temperaturak, baina ez da meritu makala taldeetako jokalariak animatzera joaten diren jarraitzaileena. Pixka bat berotu nahi izanez gero, gainera, ez dago edari beroak ematen dituen makinarik ere. Dagoen bakarrak edari hotzak ematen ditu. Mesedez, jarri kafe beroa edo bestelako edari beroak hartzeko aukera ematen duen makina bat. Ziur nago bideragarria izango litzatekeela. Salmentak ziurtatuta daude!".

Halaxe erantzun digute

Kalean edateko
deialdiak
ugaritzen ari dira
eta arrakasta
handia dute
gazteen artean.
Zergatik?



OIHANA MUNDUATE |
PSIKOLOGOA

Harremanak egiteko aukera bat da. Existitzen direla adierazteko aurkitu duten formula da. Zergatik? Gizarteak ez dielako gazteek dituzten beharrei modu egokian erantzuten. Fenomenoa behatu, kausak aztertu eta gazteak kontuan hartzen dituzten irtenbideak bilatu beharko genitzuke.

Sarean harrapatuta

Igarri duzu krisian gaudenik?

Enpresen inguruaren komentario asko entzun da aspaldian: gutxi saltzen dela, lanpostuak gutxitu egin direla, ez dela espero bezalako etekinik egon... Krisia datorrela aipatzen dute batzuek, baina badira baiko-

rragoak ere, horrenbesterako ez dela izango diotenak. Zuk zer uste duzu? Igarri duzu horrelakorik? Goinena.net webgunean jarri dute eztabaida eta hemen bildu ditugu iritzi batzuk.

PREZIOAK IZUGARRI IGO DIRA AZKEN ALDIAN

Ez dakit krisia edo zer den hau baina nik prezioen igoera igarri dut eta asko gainera! Ez dakit zeren ondorioa izan daitekeen. Bizitza asko garestitu da euroa daukagunetik; urtero 5 edo 10 zenitimo igotzen dira prezioak. Horrela jarraituz gero zer egin behar dugu? Proportzio berdinan soldatak ere igo beharko lirateke bestela orduan bai krisia, eta latza gainera!

Miren / www.goinena.net

EKOENIAK GORA BAI, BAINA SOLDATAK EZ

Aurrekoan entzun nuen Zenarruzabeitia esaten ekonomiak gora egin duela, batez ere erakuntza sektoreagatik, baina sektore guztietan egon dela gorakada. Nik ez dakit ba. Sektore guztiek egin dute gora, enpresa guztiek egin dute gora (batzuk espero baino gutxiago)... baina prezioek ere bai! Eta gure soldattek ez dute gora egin ekonomiak egin duen adina. Gure soldatuk baino gehiago garestitu dira prezioak eta, batez ere, etxebizitzan.

Ondo dago ekonomiak irabaziak izatea, baina kontua da gero irabazi horiek nola banatuta dauden ikustea: enpresari batzuk majo aberastuta daude eta beti-

koek betiko moduan jarraitzen dute, larri.

Lolo / www.goinena.net

TXINARENGANAKO BELDURRA IKUSTEN DA

Nik ez dut igarri krisirik. Egia da beldurra daukagula txinatarrak-eta zer egingo duten, baina oraindik ez da igartzen gauza handirik. Agian enpresa askotan uste baino irabazi gutxiago izan dituzte, baina hori ez da larritzekoa. Txina potentzia bihurtzen denean laga beharko diogu poten-

tzia izateari eta orduan ikasiko dugu zer den "nagusia" ez izatea.

Langabeziak ez du izugarri egin gora, lanpostuak mantendu dira. Enpresa batzuek ez dutela uste bezala irabazi? Bueno, zuzendari batzuek gutxiago irabaziz gero konpondu daiteke hori.

Aitor L. / www.goinena.net


HEMENGOK LANTEGIAK KANPORA JOANGO DIRA

Nik igarri dut txinatarren mercatuko konpetentzia. Lantegiak merkatu horri begira daude eta prest daude Asian euren lantegiak jartzeko. Horrek esan nahi du hemengo langileok aukera gutxiago eta zaitasun handiagoa edukiko ditugula. Han eskulana merkeagoa da, baita lehenengaiak ere. Konpetentzia hori igarri egingo dugu gure poltsikoetan. Horrela jarraituz gero laster igarriko dugu.

Txinua / www.goinena.net

www.goinena.net

Krisia datorrela diote batzuek. Igarri duzu krisirik dagoenik zure inguruan?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goinena.net webgunera

BERTAN DUGU DAGOENEKO KRISIA

Krisia hemen dago, baina ez dugu nahi konturatzerik. Berdin-berdin jarraitzen dugu gure gastuak egiten eta enpresek ere berdin jarraitzen dute; baina igartzen da ezintasunak daudela ekonomian. Batzuek ezkutatzea nahi dute, baina krisia egon badago.

Joseluis / www.goinena.net

MAITE AIZPIRI | DROGMENDEKOTASUN ZERB.

Espainiako zenbait lekutan hasida, eta nerabeak *boteiloia* aurka hartutako neurriei emandako erantzuna da. Gurean deialdiak ez dira hain masiboak, baina hona ere iritsi dira. Hartutako neurrien inguruaren hausnartu beharra dago, kontrako eraginak saihesteko.

ELENA AZKARRAURIZAR | GAZTEA

Ez dut sekula SMSrik jaso horrelako hitzordu batera joateko. Egia da alkohola garestia dela eta ez dugula tabernetan sartzeko adinik, baina nire ustez badaude edaten hasteko beste forma batzuk. Ez zait normala iruditzen dibertitzeko kaleak horrenbesteraino zikindu beharra.



JONE ETXEBAARRIA |
DINAMIZATZAILEA

Alkohola merkeago eta lagunartearen kontsumitzeko formula topatu dute gazteek. Gainera, gero eta adin txikiagoarekin hasten dira alkohola kontsumitzen eta ez dute euren burua tabernetan sartzeko adina nagusi ikusten. Kontua da kalean edatea oihura bihurtzen ari dela.



MAITE AIZPIRI | DROGMENDEKOTASUN ZERB.



ELENA AZKARRAURIZAR | GAZTEA

Egunkarietako harribitxiak

ALERGIAK ETA UDABERRIA

Udaberria gainean dugu, eta adituen esanetan bost gipuzkoarretik batek erreakzio alergikoak jasango ditu. Afektatu gehienak 10 eta 20 urte artean daude, eta kopurua gorantz doa. Alergologoek diote balitekeela aurten asma epidemia gertatzea, izan diren euri-jasen ondorioz.

'Noticias de Gipuzkoa'
2006-03-12



EMAKUMEAK KONTSEILUETAN, BAINA EZ LEGEZ

Lau urte barru enpresa handietako administrazio kontseiluetan "gutxienez" hamar kidetik lau emakumeak izatea nahi du Espainiako Gobernuak, baina joan zen astean Ministroen Kontseiluak onartu zuen Berdintasunerako Legearen aurreproiektuan ez du betebeharreko kuotariak ezarri. Alegia, enpresa bakoitzaren borondatearen

esku laga du azken erabakia. Aldiz, "pizgarriak" jarriko dira martxan lege berriaren bidez, Jesus Caldera lan Ministroak aurreratu duenez. Lau urte barru legearekin egoera aldatu den edo ez neurtuko du Gobernuak, eta, hobekuntzarik ez balego, "neurri zorrotzagoak" hartuko dituela esan du Calderak, kuotak legez ezartzea bazterzeke.

'Berria'
2006-03-12



Tira, tira...



Zakilixut 'Berria' | 2006-III-12

Egunkarietan irakurri dugu

'Berria'

ELKARRIZKETA

"Gure ikuspegitik gehiegia ari da atzeratzen prozesuaren hasiera, eta horrek ondorio batzuk dakartz. Prozesuaren aurka dauzenak indartzen ari dira; PP alderdia, biktimendako sektore batzuk, komunikabide batzuk. Eta prozesuaren alde daudenak ahultzen ari dira; Zapateroren gobernuak, esaterako".

Jonan Fernandez
2006-03-12

'Noticias de Gipuzkoa'

ELKARRIZKETA

"Kontuan hartuta ez dagoela inongo kausa-efekturik dispersio politika eta bi presoen heriotzaren artean, uste dut Batasuna dabilela turko-buru baten bila EAJren barruan baki prozesuaren balizko porrotaren aurrean. Gure alderdiari bota zion errua Aljeriako eta Lizarrako porroten ondotik, eta orain, badirudi berriz dabilela bidea prestatzen".

Josu Jon Imaz
2005-03-12

'Gara'

ELKARRIZKETA

"Ezin da onartu Eusko Jaurlaritzaren jarreera. Eusko Jaurlaritzarena diot, ez soilik EAJrena, hiruko osoarena. Ertzaintza gure kontra bidali zuten. Ni Bilbon jipoitu ninduten inolako istilurik ez zegoenean. Hori ezin da onartu. Mendeku hutsa da. Gu beti bakkari sentitu gara. Sakabanaketa salatzeko eskubidea dugu".

Jone Artola
2006-03-12

'El Diario Vasco'

ELKARRIZKETA

"Aurten Sevaturrek egingo duen eskaintza turistikoa espezializatuagoa da; hortaz, atomizatuagoa. Sevatur oso ondo doa horregatik zatikatu behar izan dugu eskaintza: ezberdinagoa da. Eskaintza turistiko bereziak lortzeko aukera handitu egin da aurreko ferien alderatz. Gipuzkoarren aukera errazagoak eta zehatzagoak izango dira".

Iñaki Garmendia
2006-03-12

KIROLA

- Eskubaloian, Ford Mugarri igoera faserako sailkatz da Donibaneri irabazita | 14
- Mikel Galdos golf jokalaria 8. sailkatz da Sevillako Peugeot sarian | 17



Igor Orobengoa
auto-gidariarekin
izan gara
denboraldi hasieraz
hitz egiten | 19

PRFERENTE MAILAKO TALDEAK

MONDRA
0-1
PASAIA

Mondra | Ander, Mercader, Illart, Markel, Laspur, Keixi, Loiti, Muxi (Alzola, 55. min), Murua, Zubikarai (Lopez, 68. min) eta Ekain.

Pasaia | Orokieta, Alvaro, Beñat, Rodriguez, Larrea (Eneko, 58. min), Santos (Xabier, 89. min), Alberto (Kerman, 85. min), Martin (Erlantz, 89. min), Julen (Vidal, 75. min), Arrieta eta Vidal.

Golak: | 0-1. Sergio Martinez (80. minutuan).

Epalea | Tornos jauna. Txartel gorria erakutsiz Mondra taldeko jokalari bati.

Bestelakoak | Ohiko ikusle kopurua Atxabalpe futbol zelaian.

Bikain

Modrako jokalarien jarrera
72. minutuan Mondra taldeko jokalari batek txartel gorria ikusi eta taldea jokalari bat gutxiagorekin geratu ondoren, taldeak erakutsitako jarrera txalogarria izan zen.

Kaskar

Futbol zelaia

Asteburuko euriteek ez diote mesederik egin Atxabalpeko futbol zelaia. Oso biguna eta lokaztuta zegoen eta horrek jokoari bizitasuna eta erritmoa kendu zion.

Esandakoak

"Pasaiak baino gehiago jokatu arren, ez dugu zorterik izan golik sartzeko. Beste behin saririk gabe geratu gara"

"Gaurko porrota kolpe gogorra izanda, baina aurrera begira, liga amaitzeko gelditzen diren 11 partiduak irabazi nahi ditugu".

ANDONI AZKARGORTA |
2. ENTRENATZAILEA



Euriaren erruz futbol zelaia oso biguna zegoen eta horrek lehia berezia sortu zuen jokalarien artea.

JOSEKO ARANTZABAL

FUTBOLA | PARTIDU LEHIATSUA ATXABALPEN

Hobeto jokatu arren, Mondrak ez zuen golik egin

Atzokoarekin bi partidu jarraian galdu ditu Mondrak etxearen. Bolada txar horri amaiera emateko garaipena behar du lehenbailehen

Mireia Bikuña

Futbol zelaia nahiko biguna zegoen arren, partidu interesgarria jokatu zuten Mondrak eta Pasaiak Atxabalpen.

Partidu hasieran zelai erdiko jokoa nagusi izan arren, tarteka gol aukera garbiak izan zituzten bi taldeek. Pasaiak burukada bat zutinera bidali zuen. Mondrak ere aukera garbia izan zuen Zubikarai egindako erdiraketa batean, baina Ekainek ez zuen asmatu. Lehen zatian Mondrak izan

zuen baloiaren kontrola. Atsedenaldian, dena den, berdinkezta zen nagusi markagailuan.

Bigarren zatian jokoak antzerako dinamikarekin jarraitu zuen. Gol aukera dezente izan zituzten bi taldeek, Pasaiak batez ere kontraerasoan. Baina zelaia-ren egoeraren ondorioz jokoaren erritmoa jaitsi egin zen.

TXARTEL GORRIA ETA GOLA
Partiduko unerik erabakigarrirenak bata bestearen atzetik etorri ziren. Lehen lehenik epai-

leak Mondra taldeko jokalari bati txartel gorria erakutsi zion jokaldi eztabaidagarri batean. Kepa Mercaderrek zelaia utzi zuen 72. minutuan. Eta ondoren Pasaiak gola egin zuen. Kontra-

eraso batean Sergio Martinezek baloia ate barrura sartu zuen. Bigarren zatiko 35. minutuan izan zen.

Pasaiaren gola kolpe gogorra izan zen etxeko taldearentzat, baina kemena erakutsita aurrera egin zuten partidua berdinatzeko asmoarekin. Aukeraren bat ere izan zuten azken unean Altzolaren bitartez.

Pasaiako entrenatzaileak, berri, markagailuari eusteko asmoz hiru jokalari aldatu zituen azken minutuetan. Azkenean, baina Mondrak ez zuen golik egin eta hiru puntuak ihes egin zuten.

Etxeko partiduetako bolada txarrarekin amaitzeko, datorren asteburuan partidu berri bat, Touringen aurka izango da.

Epaileak irizpide ezberdinak erabili zituen txartelak ateratzeko orduan

**Mondra taldeko
Kepa Mercaderrek
txartel gorria ikusi
zuen bigarren
zatian**

PREFERENTE MAILA



ARTXIBOA

Xabier Elgarresta eta Roberto Idigoras izan ziren golegileak Irunen. Jon Ander atezainak penaltia gelditu zuen.

Aloñak sailkapeneko aldea handitu du Irunen irabazita

IRUN 1902
0-3
ALOÑA MENDI

Irun 1902 | Muñoz, Sagrado, Iglesias, Alvarez, Jimenez, Perez, Muñoz (Azaldegi, 61. min.), Goenaga, Iglesias, Garcia (San Martin, 69. min.), Artetxe (Mura, 82. min.).

Aloña Mendi | Elgarresta, Elgarresta, Idigoras (Aramendi, 80. min.), Garai (Losa da, 68. min.), Barrena, Arregi I.a, Sanchez (Maiztegi, 64. min.) Olalde (Garmendia, 69. min.), Lopez (Zubia, 61. min.), Arregi II.ena eta Igartua.

Golak: 0-1, Roberto Idigoras (25. min.). 0-2, Xabier Elgarresta (50. min.). 0-3, Roberto Idigoras (62. min.).

Epailea: Belmonte jauna.

Irunen lortutako hiru puntuek sailkapeneko lidertza sendotzeko balio izan zaizkio Aloñari. Zapatuan 0-3 irabazi zuten Aitor Oruetaren mutilek Irungo Gal estadioan.

Partidu gogorra izan zela adierazi digu Aitorrek. Aloñaren helburua lehenengo 15 minutuetan eustea izan zen: "Guk bagenekein irundarrak gogor aterako zirela; beraz, hasieran eutsi egin dugu eta gero aurrera atera gara".

ENTSEATUTAKO JOKALDIAK

Aloñak entseatutako jokaldietan min handia egin zion etxeko taldeari. Horrela, 25. minutuan, korner baten ondorioz Roberto Idigorasek partiduko lehenengo gola egin zuen.

Golaren ondoren, etxeko taldea falta asko egiten hasi zen. Oñatiarrak ere dinamika berean sartu ziren, eta ondorioz baloi asko galdu zituzten zelai erdian. 45. minutuan jokaldi erabakigarría izan zen: Jon Ander Elgarresta atezainak Aloñaren aurkako penaltia gelditu egin zuen.

Bigarren zatian Aloñak erosotasun handiagoarekin jokatu zuen. Kontraeraso bikain batean, Unai Arregik ezkerreko hegaletitik erdiratu eta Xabier Elgarrestak baloia saretan sartu zuen.

Azken minutuetan, etxeko taldea bat gutxiagorekin geratu zen. Hori aprobetxatzuz, Aloñak ez zuen arazorik izan 0-3koa egiteko. Roberto, beste kontraeraso bat aprobetxatzuz, izan zen golegilea.

Lehenengo erregionala

Zelaiaren egoera txarrak joko eskasa eragin zuen

BERGARA
3-2
ELGOIBAR

Arantzazu Ezkibel

Zelaiaren egoerak guztiz baldintzatu zuen partidua Agorrosinen. Bi taldeek baloi luzeak jaurti zituzten, baloia motzean jokatza ezinezko zen-eta zapatuan zelaiak zuen egoeragatik.

Partidua ondo hasi zen etxekon. Lehenengo minutuan, Bergarak aurre hartzea lortu zuen jokaldi bizi batean.

25. minutuan, Jokinek area kanpotik baloia jaurti, baina gutxigatik kanpora joan zen. Aukera ona izan zen markagailuan aldea handitzeko. Bergarak ez, baina Elgoibarkoek asmatu zuten hurrengo jokaldian baloia saretan sartzen. Elgoibarko aurrelariak area ertzetik jaurti eta berdinketa lortu zuen. Bost minutura, epaileak penaltia adierazi zuen Bergaren alde. Asierrek hartu zuen baloia jaurtitzeko

ardura, baina gaizki bota zuen eta atearen gainetik joan zen baloia.

IKAK-MIKAK

40. minutuan, Canasek 2-1eko egin zuen. Hala ere, pozak gutxi irau zuen: atsedena gainean zela, Elgoibarrek berdindu egin zuen.

Bigarren zatia oso lehiatsua izan zen. Jokalariak berotu eta ikamikan hasi ziren. Horrek gutxi ez bazea, Elgoibarko entrenatzailea ere publikoarekin eztabaidan hasi zen.

Azkenean, Imanolek sartutako golak garaipena eman zion etxeko taldeari (3-2).

UDAk ez zuen hutsik egin Zestoaren aurka

ZESTOA
1-2
UDA

Mireia Bikuña

Sailkapeneko goi postuetan segitzeko ezinbestekoa zuen garapena UDAk. Eta eguraldi kaxkarri eta zelaiaren egoerari aurre eginez helburua lortu zuen.

Partidu lehiatsua jokatu zuten Zestoak eta UDAk. Hala ere, markagailuan Aretxabaletako taldea zen nagusi atsedenean, 0-2. UDAren golak Arriagak eta Oruetak egin zituzten.

ESTUTASUNAK

Bigarren zatiko ordu laurdena bete orduko Zestoak aldea murritztea lortu zuen. Are gehiago, azkeneko minutuetan UDAk estutasunak izan zituen defentsan. Zestoak baloi asko jaurti zituen areara, berdinketaren gola lortzeko asmoz.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAIZKAK	SAILKAPENA							
		Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
Zestoa-UDA	1-2	1-2						
Allerru-Touring	1-1							
Mondra-Pasaiako	0-1							
Berio-Orioko	2-3							
Irun 1902-Aloña Mendi	0-3							
Anaitasuna-Idiazabal	0-1							
Hondarribia-Beti Gazte	2-1							
Trintxerpe-Mutriku	1-3							
Hernani Ordizia	1-0							
Zarautz-Real Union	1-1							
HURRENGOAK								
Real Union-Zestoa								
UDA-Allerru								
Touring-Mondra								
Pasajes-Berio								
Orioko-Irun 1902								
Aloña Mendi-Anaitasuna								
Idiazabal-Hondarribia								
17.Irun 1902	27	28	7	15	6	38	57	
18.Orioko	24	28	5	14	9	36	64	
19.Beti Gazte	18	28	3	16	9	28	49	
20.Allerru	16	28	3	18	7	23	62	



Bergarak 3. postuan jarraitzen du 51 punturekin.

JOSETXO ARANTZABAL

- LEHENENGOKO TERRITORIALA

Igoera fasea jokatuko du Ford Mugarri Arrasatek

*Sari bikoitza
zuen atzoko
garaipenak: liga
txapelketa eta
igoera faserako
txartela*

FORD MUGARI	26-24
DONIBANE	
Ford Mugarri Egaña, Valle, Eskibel, Eskibel, E. Gartzia (1), Urrutia, A. Gartzia (4), Ortiz de Mendibil, Murillo, Lonbide (1), Calleja (4), Altzelai (6), Isasmendi (6) eta Otegi (4).	
Donibane Gajate, Riaño (1), Pardo (8), Etura (1), Elustondo (5), Oiarbide, Ziganda, Badiola, Vicente (1), Plazaola (4), Perez (4) eta Gonzalez.	
Golak bost minuturo: 1-2, 6-4, 9-5, 11-9, 11-11, 16-14. Atsedena. 16-16, 18-19, 21-21, 23-22, 26-22, 26-24.	



JOSETXO ARANTZABAL

Iker Otegik lan polita egin zuen pibotaren postutik. Lau gol sartu zituen.

Mireia Bikuña

Helburu bakar batekin atera ziren kantxara Ford Mugarriko jokalariak: partidua ez galtzea. Garaipenak eta berdinketak ematen zien igoera faserako txartela. Garaipenarekin, gainera, liga txapelketa lortzeko aukera zuten. Partidua irabazteak sari bikoitza eman zien.

HASIERA BIZIA

Partidu hasiera oso parekatua izan zen. Ford Mugarri aldea hartu zuen markagailuan hegal-letako jokalariek sartutako golei esker. Donibane ez zen kikildu eta berdintzea lortu zuen. Atsedenean, dena den, etxekeko taldea zen nagusi.

Bigarren zatiaren hasieran jokoa asko nahasi zen. Arando-

ren taldeari kosta egin zitzaiion lehen gola sartzea: 5. minutuan lortu zuen. Jarraian markagailuak gorabehera asko izan zituen. Berdinaketa asko tartekatu ziren. Arrasatearrak 23-22 aurretek zirela Egaña ateainak penaltia geratu egin zuen eta jarraian Ford Mugarriko hiru gol sartu zituen.

Azkeneko minutuetan, ordea, urduritasuna nagusitu

zen jokalari eta zaleen artean, epaileek etxekeko bi jokalari kanporatu zituzten-eta.

IGOERA FASEA

Datorren asteburuan hasiko da igoera fasea. Sei taldek parte hartuko dute eta lehenengo biak dira datorren denboraldian Euskadi-ko Txapelketa jokatzeko txartela irabaziko dutenak.

- NESKEN EUSKADIKO TXAP.

Ondo jokatu arren, Aloñak galdu egin zuen

A.G.

22-17 galdu zuen Verkol Aloñak Elgoibarren aurka. Partidua parekatua izan zen. Benito entrenatzailearen esanetan, bi taldeak ondo aritu ziren bai defentsan eta bai erasoan. Joko polita ikus-teko aukera izan zen, beraz, Elgoibarko kiroldegian.

Bada, oñatiarren akatsa penaltietan egon zen; izan ere, lau penalti huts egin zituzten Aloñako neskek.

Bigarren zatian, defentsako eritmoa jaitsi egin zuten oñatiarrek. Horrela, hiru gol atzetik jarri ziren markagailuan eta partidua galduzat jo zuen Aloñak.

Hiru partidu falta dira liga amaitzeko, eta Benitoren ustez, bost puntu nahikoa izango dituzte mailari eusteko.

- 1. TERRITORIALA

Bergarak 26-23 galdu zuen Urnieta-korekin

Asteleheneko Goienkaria

Bergarak sailkapenean aurkari zuzena zuen Urnieta-koren aurka galdu eta gero, 8. postuan amaitu du liga, 15 punturekin.

Partidu txarra jokatu zutela adierazi digu Lander Juaristik: "Lehenengo zatian erasoan ideia gabe aritu gara eta aukera garbiak huts egin ditugu". Jaurtiketa samurra huts egiteaz gain, penaltietan ere ez ziren fin aritu bergararrak. Bigarren zatian, jokoari dagokionez ez zen alda-keta handirik ikusi.

Talde mahoneroa defentsan ondo aritu zen, batez ere atezainaren lanari esker. Bain ater alegia gaizki aritu ziren.

- LEHENENGOKO TERRITORIALA

Garaipena ligako azken partiduan

ARRIKRUTZ ALOÑA	29-26
ORMAIZTEGI	
Arrikutz Aloña Zurututza, Galarza (4), Arregi, Gartzia (2), Pata (2), Bernal (4), Zulueta (6), Gartzia (6), Hernandez (1), Lizarralde, Ugarte, Agiriano (4) eta Gartzia.	
Ormaiztegi Maiz, Alberdi (2), Agirre (2), Aramendia, Mazorriaga (5), Irizar (3), Maiz (5), Hernandez, Aramendia (2), Holgado (5) eta Petxarrman.	
Golak bost minuturo: 1-1, 2-4, 3-5, 6-7, 9-7, 11-8. Atsedena. 14-10, 18-13, 22-15, 23-19, 25-23, 29-26.	

Mireia Bikuña

Motelak izan ziren Aloñak eta Ormaiztegik Zubikoan jokatutako partiduaren lehenengo minutuak. Golak sartzea kosta egiten zitzaien bi taldeei. Ormaiztegiko taldea izan zen hasieratik aldea hartu zuena. Ateainaren geldiketei esker eta erasoko lana sendotuta Iñigo Aranbururen mutilak gai izan ziren markagailuan berdinketa lortzeko.

KANPORAKETA ASKO

Lehenengo zatiko azken minutuetan eta bigarren zatiaren



JOSETXO ARANTZABAL

Amaitu da liga txapelketa Arrikutz Oñatiko Kobak taldearentzat.

hasieran epailea protagonista bilakatu zen. Bi taldeetako jokalari asko kanporatu zituen eta jokoa nahasi samarra izan zen.

Bada, ondo aprobetxatu zuen Aloñak egoera hori markagailuan behin betiko aldea haritzeko.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Lajontzi Elgoibar-Verkol Aloña 22-17

LEHENENGOKO TERRITORIALA

Arrikutz Oñatik Kobak-Ormaiztegi 29-17

Ford Mugarri-Donibane 26-24

Urnieta-Bergara 26-23

GAZTE MUTILAK

Bergara atsedena

Aloña Mendi-OET BKL OKE 28-24

Gatz Museoa Jakion-Usurbil 30-25

GAZTE NESKAK

Verkol Aloña-Bergara 30-18

KADETE MUTILAK

Arrate- Aloña Mendi 25-20

Donibane- Gatz Museoa Jakion 25-21

- LEHENENGKO MAILA, IGOERA TXAPELKETA

Azken laurdenean galdu zuten

Partidu guztia aurretik joan eta gero, azken laurdenean ihes egin zion partiduak Mugarri Alkesari. Hala ere, ez dago dena galdua

ASKARTZA
76-65
MUGARRI ALKESA

Askarta | Diaz de Guardamino (2), Baza (19), Iglesias (6), Zalduado (4), Gascón (11), Ortiz (1), Serrero (14), Icaza (3) eta Sistagia (14).

Mugarri Alkesa | Gamarra (10), Mallabiarren (11), Biain, Barberena, Herzog, Kitana (30), Alarcia (3) eta Biain (13).

Laudenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 18-22. Bigarren laurdena 30-33. Hirugarren laurdena 50-49. Laugarren laurdena 76-65.

A. G.

Ezinezkoa izan zen. Mugarri Alkesak 76-65 galdu zuen atzo Leioan eta bigarren postuari uko egin dio, oraingoz.

Partidua oso berdindua izan zela esan digu Jagoba Gamarra. "Partidua ia guztia aurretik izan gara, baina azkenean bi huts izan ditugu eta markagailuan aurrehartu digute". Hala azaldu zigun

Leioan gertatutakoa.

Lehenengo laurdenean 18-22 nagusitu ziren Arrasatekoak. Joko ona egin zuten, batez ere era soan. Defentsan, gogorrako aritu ziren etxeekoak eta horrek azken emaitzan eragina izan zuen.

HIRUKO SASKIRATZEAK KONTRA

Bigarren laurdenean 12-11ko partziala izan zuten kontra Mugarri Alkesakoek, hala ere atsedenera abantailaz iritsi ziren: 30-33.

Partidua bizi zegoen atsedanean. Mugarri irabazten ari zen eta Leioara hurbildutako zaleak pozik zeuden.

Hirugarren laurdenean, etxe koak markagailuari buelta ematen hasi ziren. Banakako defen tsa oso gogorra egin zuen Askartzak. Iñigo Biainek gainean izan zituen aurkariak, ezer egiteko aukerarik izan gabe. Jagobak adierazi digunez, partiduaren erritmoa alde izan zuten etxeekoek. Arrasatearen jokoak, erasoan oinarritzen den moduan, biz kaitarrena defentsan oinarritzen



ARTXIBOA

Atzo partidua galdu arren, igoerako ametsak jarraitu egiten du.

da. Hori dela eta, 3. laurdena amaitzean aurretik zen Askarta.

Azken laurdenean joan zitzaiion partidua Mugarri Alkesari. Markagailuan berdinduta zeudela, bi akats izan zituzten defentsan eta Askartzako Sistagia hauek aprobatxatu zituen 3 puntutako saskiratzeak egi teko.

Azkenean, beraz, esku hutsik etorri ziren Arrasatera. Hala ere,

6 partidu gelditzen dira ligaxka amaitzeko eta oraindik aukerak daude bigarren postua lortzeko.

JARRAITZAILEAK BIKAIN

100 jarraitzaileek gora izan ziren Leioara joan zirenak. Jagobak esan digunez, harmailak beteta zeuden eta inoiz bizi gabeko sen tsazioa bizi izan zuten jokalariak. Jarrera ona erakutsi zuten taldea animatuz.

- SENIOR MAILAKO MUTILAK

Joko eraginkorra egin zuen Candyk

CANDY BERGARA
75-58
ALDE ZAHARRA

Candy Bergara | Murillo (10), Ancín (10), Urbina, Morais (4), Arteaga (5), Beistegui, Ugarte, Alonso (12), Iñarra (12), Aliaga (4) eta Eraña (18).

Alde Zaharra | Gonzalez (11), Lopez, Lopez (7), Franco (15), Mecerrey (1), Gonzalez (6), Abanteas, Mijangos, Lopez (7), Mecerrey eta Erzilbengoa (8).

Laudenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 20-16. Bigarren laurdena 36-26. Hirugarren laurdena 53-41. Laugarren laurdena 75-58.

Arantzazu Ezkibel

Candy Bergarak lan txukuna egin zuen zapatuan Labegaraietan. Sailkapenean bigarren postuan dagoen Alde Zaharrari nagusitu zitzaiion Bergarako taldea, inongo arazorik gabe.

EPAILEAREKIN ISTILUAK

Markagailua hasieratik jarri zen etxeeko alde; lehenengo laurdenean 20-16 nagusitu ziren David Urbinaren mutilak.

Defentsa ona egin zuen talde mahoneroak; banakako defen tsan aritu ziren, aurkariari tau la azpian jaurtiketak egiteko zail



JOSEKO ARANTZABAL

Gorka Erañak (15. zenbakiduna) 18 puntu egin zizkion Alde Zaharrari.

tasunak jarrita. Erasoan, berriz, lan eraginkorra egin zuten.

Epaileak izandako erabakiekin desadostasuna erakutsi zuten

donostiarrek. Hori dela eta, falta tekniko ugari izan zituzten alde etxeekoek. Hortaz, merezitako garaipena Bergararentzat.

- 2. TERRITORIALA

3. laurdenean egin zion ihes partiduak Eskoriatzari

ASKARTZA
54-38
ESKORIATZA

Asteleheneko Goienkaria

Partidua oso gogor hasi zuten arren, 3. laurdenean izandako gainbeherak partidua galtzea ekarri zien Eskoriatzako neskei.

Lehenengo laurdenean joko ona egin zuten Javi Corbalen neskek. Hasierako minutuetan 0-7 jarri ziren aurretik markagailuan, baina azkenean bizkaitarrrek buelta eman zioten partiduari eta lehen laurdeneko partziala 15-12 izan zen.

ZONAKAKO DEFENTSA

Bigarren laurdenean jokoak ez zuen aldaketarik izan. Atsedenera bost puntugatik galtzen iritsi ziren eskoriatzarrak.

3. laurdenean gauzak asko okertu ziren ibarreko neskentzat. Askarta banakako defentsa egitik zonakako defentsa egitera pasa zen. Erasoan zaitasun asko izan zituzten eskoriatzarrak. Baloia galdu zituzten eta etxe koek aukera horiek aprobatxatu zituzten kontraerasoan ateratzeko. Partidua erabakita gelditu zen.

Emaitzak horrekin, Eskoriatzako taldeak sailkapeneko zuloan jarraitzen du.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGKO MAILA

Askarta-Mugari Alkesa 76-65

NESKEN BIGARREN MAILA

Askarta-Eskoriatza 54-38

SENIOR MUTILAK

Candy Bergara-Alde Zaharra 75-58

Kevian Sport-Aloña Mendi 60-48

SENIOR NESKAK

Bilintx- Aloña Mendi 60-52

GAZTE MUTILAK

Anareta-Goierrri 56-58

Aloña Mendi-Toke Zarautz 48-62

Mugari Alkesa-Hernani 65-39

GAZTE NESKAK

Aloña Mendi 60-52

BKL CAF-Eskoriatza 56-35

KADETE MUTILAK

Goierrri B-Aloña Mendi 54-41

Mugari Alkesa- Gros Xake 55-54

KADETE NESKAK

Graficas Ilba ZKE-Eskoriatza 32-42

Eskola kirola

OÑATI

"Nahiko genuke herritik kanpoko taldeen aurka ere jokatu"

Oñatiko Zubikoa kiroldegia bete-beteta ikusi genuen zapatu goizean

Kanpoan jokatzekoak ziren partiduak bertan behera geratu ziren euriagatik

Eskubaloi partiduak izan ziren nagusi kiroldegiko aterpearren babespean

Geaxi Ezpeleta

Bergara eta Leintz ibarreko kasuan, herri desberdinako gaztetxoek elkarren aurka jokatzen dute. Oñatin, berriz, talde guztiek herrikoak bertakoak dira. Neska-mutikoek beste herri batzuetako taldeen aurka jokatzea gogoko izango luketen jakin nahi izan dugu. Dendarik gabe, denak daude irrikia bizian: "Herri eta jende berria ezagutzeo aukera izango litzateke". Hala ere, arduradunek esan digutenez, "lehenengo geratzen diren alebin taldeek soili hartuko dute parte ibarreko txapelketan". Beste guztiek itxaron egin beharko dute.

Kanpoan euri hotsa nagusi zen bitartean Oñatiko gaztetxoak Zubikoa kirolegian gogotsu jokatzen aurkitu genituen. Joko polita erakutsi zuten eskubaloian jardun eta saskibaloian jokatu zuten gaztetxoek.

EGURALDIAGATIK HAINBAT PARTIDU EZ ZIREN JOKATU

Zapatauan izan genuen euri jasaren eraginez, kirolegitik kanpo jokatzekoak ziren partiduak bertan behera lagatzea erabaki zuten. Jokatu gabe gelditu ziren taldeetako jokalariek, goiza apro-betxatzeko, kirolegi barruan jardun zutenak animatu zituzten.

Beraz, kanpoan partidurik ez, baina barruan harmailak ia beteta.



GEAXI EZPELETA

Arranuak. Ander, Gorka, Mikel, Iñigo, Julen, Aitor eta Beñatek osatzen dute Oñatiko talde hau.



GEAXI EZPELETA

Tigreak. Alazne, Amaia, Leire, Igone, Eli, Lore eta Garazik jokatu zuten zapatuko partidua.



GEAXI EZPELETA

Errekald 6B. Melani, Janire, Irati, Agostina, Ane, Naiara eta Maide-rek osatutako taldea.




GEAXI EZPELETA

Xaguxarrak. Eneko, Julen, Mikel B., Andoni, Enaitz, Mikel I., Ander, Iñaki eta Oxel.

• OÑATIKO GAZTETXOAK HERRITIK KANPOKO AURKARIAK IZATEKO IRRIKAN DAUDE



**MAIDER ETA ANE |
ERREKALDE 6-B**



**MARKEL ETA JON ANDER |
URBIA**



**GARAZI ETA LORE |
TIGREAK**



**ENEKO, MIKEL B., MIKEL I. ETA OXEL |
XAGUXARRAK**

"Asko gustatuko litzaiguke beste herri batzuetako taldeen aurka jokatzea. Jen-de berria ezagutu eta batez ere aldatze-ko. Bestela, beti berdinen aurka...".

"Herri desberdinako jendearen aurka jokatzea ondo lego ke. Beti berdinen aur-ka jarduten agian aspertu egingo gare-lako".

"Oso ondo egongo litzateke beste herri batzuetako taldeen aurka ere jokatzea. Herritik irten, giroz aldatu eta herri des-berdinako jendea ezagutzeagatik".

"Asko gustatuko litzaiguke herritik kanpoko taldeen aurka jokatzeko aukera izatea. Beste-la, urtero-urtero berdinen aurka egiten dugu-nez, aspertu egin gaitezke".

Iruditan



ARANTZAZU EZKIBEL

XIX. eskolarteko mendi ibilaldi neurria. Domeka goizean 400 neska-mutiko inguru bildu ziren Bergarako San Martin plazan mendi ibilaldi neurria egiteko. Bergaran izan zirenak Deba ibar osoko umeak ziren. Hala, 11,2 kilometroko ibilaldia egin zuten Gorla eta inguruetan. Amaieran, diploma bana eta janaria jaso zituzten guztiek.



JOSETXO ARANTZABAL

Pilotxa profesionala. Titin III.ak eta Elkorok 22-16 irabazi zioten Xala eta Goñi III.a bikote urdinari. Partidu luzea izan zen atzokoa, guztira 772 pilotakada eman zituzten-eta. Azkenean, faboritoak nagusi.



Xakea. Beste urte batez, ibarreko bi talde aritu dira Euskal Ligan, Aretxabaletak ohorezko mailari eta Arrasatek 1. mailari eutsi diote-eta.



JOSETXO ARANTZABAL

Porrot mingarria. Minduta bukatu zuen Eskoria-tzak zapatuko partidua. Epaileek hartutako erabaki batzuen ondorioz ihes egin zien garaipenak: 4-5.



JOSETXO ARANTZABAL

Elgetako 4 t'erdiko txapelketa. Ibarreko 17 pilotari aritu dira (guztira 108). Asteburuan hasi da eta ekin bukaeran edo uztail hasieran izango da finala.



JOSETXO ARANTZABAL

Areto futbola. Aloñak etxearen 1-4 galdu zuen Pasaia-ren aurka. Lehenengo zatiko 15. minutuan Aitzolek sartutako golak ez zuen ezertarako balio izan.

MANOLO MUÑOZ | ESKORIATZARRA, BARTZELONAKO ZALEA

"Bartzelonak ez du zertan atzera begira egon behar"

Xabier Urtzelai

Asteburu biribila izan da behar handiena duten euskal taldeenda-ko.

Halaxe da. Beno, Eibarrek galdu egin du, eta dagoeneko azkeneko postuan daude. Bestela, Alavesek, Athleticek eta Realak irabazi egin dute. Realaren garaipenagatik pozten naiz, batez ere.

Bartzelonako zale zaitugu, eta Realak talde horren kontrajokatuko du datorren astean.

Bartzelonako zalea izan naiz beti, baina baita Realekoa ere. Datorren astean txaketaz aldatuko dut, Bartzelonak baino behar handiagoa duelako Realak.

Horrekin batera, pena handia hartuko nuke Athleticek maila galduko balu. Hemengo jokalarietan osatutako taldea da, eta gaur egun horrek asko balio duela uste dut. Euskadik galdu egingo luke Athletic Bigarren Mailan egonda.

Valentziak eta Madrilek mesede galanta egin diote Bartzelonari.

Egia da hori, norgehiagoka eskasa jokatuta berdindu egin zutelako. Esango nuke, badaude la beste talde batzuk bi horiek besteko maila daukatenak, Osasuna, adibidez.

Akaso, Bartzelonak dagoeneko ez du inoren mesederik behar.

Asko esatea da hori. Hainbat puntuoa aldea du, eta egia da ez duela zertan atzera begira egon behar. Betiere, norgehiagoka guztiak irabazten baditzute.

Aurreko batean Javi Lazcano bergararrak esan zigun Bartzelonatik Deco aukeratuko zukeela.



Manolo Muñozek ondo ezagutzen ditu Eskoriatzako kirol taldeak.

Neuk ere bai, duda barik. Bartzelonarenak oinarrizko jokalaria da.

Zubiaurrek bost milioi ordaindu behar dizkie Realari, eta Athleticek ere erantzule da.

"Euskadik galdu egingo luke Athletic Bigarren Mailara jaitsiko balitz"

Kontu aldreibesa da hori. Batez, Athleticek behar baino azkarra aurkeztu zuen jokalari hori, eta bestetik, Zubiaurreren aholkularia ez zen batere fin ibili. Orain, Athleticek ezin du Zubiaurre alde batera utzi.

Esan iezadazu ze hiru talde jaitsiko diren Bigarren Mailara.

Nahiko garbi daukat Malaga jaitsi egingo dela. Mallorcak, berriz, psikologo lanetarako aparta den Manzano ekarri du, eta asmatu egin dute. Eta, Tikok penaltia asmatu izan ez balu... kontuz.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Osasuna-Bartzelona	2-1
Mallorca-Vila-real	1-1
Alaves-Sevilla	2-1
Athletic-Cadiz	1-0
Zaragoza-Getafe	1-2
Betis-Malaga	1-1
Atletico-Racing	2-1
Espanyol-Celta	2-0
Deportivo-Real	0-1
Valentzia-R.Madrid	0-0

HURRENGOAK

Getafe-Deportivo
Real-Bartzelona
Vila-real-Athletico
Racing-Valentzia
Sevilla-Mallorca
Cadiz-Alaves
Espanyol-Osasuna
Malaga-Zaragoza
R.Madrid-Betis
Celta-Athletic

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	61	27	19	4	4	64	25
2. R.Madril	52	27	16	7	4	50	26
3. Valentzia	52	27	14	3	10	37	21
4. Osasuna	49	27	15	8	4	35	30
5. Celta	45	27	14	10	3	29	27
6. Sevilla	44	27	13	9	5	35	29
7. Vila-real	43	27	11	6	10	37	26
8. Atletico	41	27	11	8	8	38	26
9. Deportivo	40	27	11	9	7	36	31
10. Getafe	37	27	10	10	7	36	34
11. Zaragoza	36	27	8	7	12	37	37
12. Espanyol	30	27	8	13	6	27	41
13. Racing	29	27	6	10	11	24	31
14. Real	28	27	8	15	4	35	51
15. Mallorca	27	27	6	12	9	27	42
16. Athletic	26	27	6	13	8	29	37
17. Alaves	26	27	6	13	8	30	45
18. Betis	26	27	6	13	8	24	39
19. Cadiz	25	27	6	14	7	20	36
20. Malaga	22	27	5	15	7	29	45



KINIELA

1. Betis-Malaga	X
2. Zaragoza-Getafe	2
3. Deportivo-Real	2
4. Espanyol-Celta	1
5. Athletic-Cadiz	1
6. Alaves-Sevilla	1
7. Mallorca-Vila-real	X
8. Atletico-Racing	1
9. Osasuna-Bartzelona	1
10. Numantia-Tenerife	1
11. Hercules-Lleida	1
12. Murtzia-Elche	1
13. Recreativo-Levante	1
14. Almeria-Valladolid	1
15. Valentzia-R.Madrid	X

Harmailatik

Horrela amaitu dadila!



Xabier Urtzelai

benetako finala. Jaitsiera postuetatik irtenda, berriro atzera ez egitea.

Esaldiak. Athleticeko entrenatzaileari elkarritzeta egin dio Argia astekariak, eta Barakaldoaren bi esaldi azpimarratuko ditugu: "Neguritik oso jokalari gutxi dato Lezamara; han klase soziala altua dutelako, eta futbolak beste ezaugarri batzuk eskatzen dituelako", eta: "Correo taldeari interesatzen ez zaiona egonkortasun sozial erabateko da. Ez dut esango Diario Vasco-ri Real gaizki ibiltzea komeni zaionik, baina ongi joatea behintzat ez zaio interesatzen". Barakaldoakoak badaki kirolak eta politikak zenbaterainoko erlazioa duten.

Eta, San Mamesen errepi-katu zen atzo erretratu hori, denak elkarri helduta. Talde izaera erakusten du horrek, eta baita asteburuan erdietsi dituzten puntuak zenbat balio duten. Ezin ahaiztu Osasuna; bikain, liderra mendeak hartuta.

Jaitsiera postuak. Liga Txapelketa orain amaituko balitz, Malaga, Cadiz eta Betis joango lirateke Bigarren Mailara. Baina, hamaika jardunaldi geratzen dira oraindik, eta gorabehera handiak izango dira. Orain hasten da euskal taldeendako

Zirkua. Atzo hasi zen benetako zirkua, audientzietan futbola atzean uzteko gauza den ikuskitzuna: 1Formula. Raikkonenek egin zuen lasterketa!


Iraola eta Tiko

Realeko Garitanori meritua kendum barik, Iraolak eta Tikok erakutsi zuten atzo badakitela zer den ardura hartzea. Iraolak ez zuen bigarren penaltia bota gura izan, baina hor zegoen Tiko.

Ronaldo

Beherako gezia ez da zapatuan Valentziaren kontrako penaltian kale egin zuelako, edonori gerta dakiore hori. Hori bai, Madrilgo aurreliari gero eta itxura eskasagoa ematen du zelaian.

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Igor Orobengoak betidanik izan du autoa afizio. Hori dela-eta, orain dela lau urte rallyetan parte hartzen hasi zen, bere lagun Iñigo Saizarekin batera. Lehenengo

autoa Corsa GSi bat izan zuen. Ordutik hona, ordea, aldatu egin du autoa. Gaur egun TDI Diesel batekin dabil rallyetan gora eta behera. Denboraldia otsailaren

18an hasi zen, Mungian, eta atzo, aurtengo 3. proba jokatu zen Gabirian. Igor hantxe izan zen bere anaia Iker lagun zuela, eta 20. postuan bukatu zuten proba.

IGOR OROBENGOA | AUTO GIDARIA

“Diru asko eskatzen duen afizioa da autoena; gastu asko dauzkagu eta laguntza gutxi”

Arantzazu Ezkibel

Noiz eta zela hasi zinen lasterketan parte hartzen?

Orain dela lau urte sartu nintzen mundu honetan. Hasiera batean bi urtean ibiltzeko asmoa neukan, baina oraindik hemen jarraitzen dut. Hala ere, aurten utzi egingo dut, afizio horri eus-teko diru asko behar da-eta.

Rally denboraldia hasi berria den arren, Gabiriakoa izan da zure lehenengo proba aurten.

Bai. Arerten autoarekin arazo batzuk izan ditut eta oraindik ez dut lasterketarik egin. Gabiriakoa izan da lehena.

Ze auto erabiltzen duzu eta nondik nora lortutakoa da?

Orain, TDI Diesel bat dauka-gu. Guztiz hondatutako auto bat erosi nuen eta poliki-poliki pieza berriak jarri dizkiot.

Babeslea lortzea zaila izaten da zuen mailan?

Bai, oso zaila. Gurean jendeak badu autoekiko zaletasuna, baina dirua jartzeko orduan arazoak izaten dira.

Gure babesleak Arrasateko bost taberna dira: Biona, Irati, Basati, Ekaitz eta Iluntz. Horiez gain, Ibabe eta Gallastegi Motor Sport garajeak ere gure babesle dira. Autoa konpontzeko orduan asko laguntzen digute. Prezio onean saltzen dizkigute piezak. Zer da beharrezkoa gidari ona izateko? Fisikoki ala psikikoki izan behar da gogorragoa?

Auto barruan egoteko, fisikoki ondo prestatuta egon behar da, baina, dudarik gabe, burua da garrantzitsuena. Non zauden argi eduki behar duzu. Lasterketan zoazela, edozein ezuste izan dezakezu, eta burua bere lekuaren behar duzu egoera horri buelta ematen jakiteko. Kontuan

izan behar duzu zer duzun irabazteko eta zer galtzeko eta gero zuk zure erabakia hartu.

Zein da zure kopilotua? Zein da kopilotuaren lana eta zenbateko pisua du azken emaitzan?

Orain nire anaia Iker aritzen da nirekin kopilotu lanetan. Egia esan, harengatik jarraitzen dut mundu honetan.

Kopilotuaren lana oso garrantzitsua da; guztia dela esan dezakegu. Rallyaren tarte batek dituen kilometro guztiak ezin dituzu buruan hartu. Pasa den denboraldian, esaterako, Frantzian izan ginen 22 kilometroko proba batean. Ezagutzen ez duzun bide batean zaudenean, ezinezko da guztia kontrolpean izatea.

Horretarako beharrezko da laguntzailea. Istripu asko ekidin izan dira kopilotuaren lanagatik. Euskal Herrian egiten diren proba guztiak zein da gogorrena edo politena?

Politena, orain jada egiten ez den proba bat: Azpeitiko rallya, uztaila bukaeran egiten zena, gauez izaten zen. Abiadura txikiagoan joan behar izaten zen, baina oso polita zen.

Rallyetan zenbat debagoiendar aritzen zarete?

Asfaltoko rallyetan Jonathan Suarez oñatiarra, Haritz Errasti aramaioarra eta ni neu aritzen gara. Aitor Zabaletak igoerak egiten ditu eta Emilio Huerta arrasatearra lurreko rallyetan aritzen da.

Non eta nola entrenatzen zarete?

Zaila izaten da entrenatzea, zirkuituetara joan beharra dago-eta. Normalean, Jaramara, Mirandan dagoen zirkuitu txiki batera edo Pou-ko zirkuitura joaten gara.

Lasterketa aurreko egunean ibilbidea probatzeko aukera izan

ten dugu, baina kaleko autoarekin egin ere.

Denboraldi hasieran, autoa Arantzazura eramatzen duzue bedeinkatzeria?

Ez. Autoan ere ez dugu ezer berezirik zintzilik. Hori bai, gure amak kandela bat pizten digu lasterketa dugunetan.

Gidabaimena lehenengoan atera zenuen?

Ez, bigarrenean. Gidatzen baniekien arren, lehenengo azterketan semaforo bat gorri zegoela pasa nuen.

Instituzioen aldetik zer-nolako jarrera dago rallyekiko?

Nahiko txarra. Ez dakit federazioaren edo gobernuaren aldetik dauden oztopoak, baina gero eta karrera gutxiago antolatzen dira. Gainera, horiek gero eta garestiagoak dira. Alde handia dago hemengo lasterketa batean ordaindu behar denaren eta beste autonomia batzuetan ordaindu behar denaren artean. Kantabrian, esaterako proba gehiago antolatzen dira eta izen ematea merkeagoa izaten da.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Azpeitiko Lagun Artea taldean dago federatuta Igor.

VIII. Gabiriako rallysprinta

Lan ona egin zuten ibarreko gidariek Gabiriako rallyan. 1. mailan, Jonathan Suarez eta Xabi Altube 2. postuan sailkatu ziren. Haien atzetik Haritz Errasti eta Ander Oien aramaioarrak sartu ziren. 3. mailan, berriz, Igor eta Iker Orobengoa azken postuan sailkatu ziren. “Azken itzulian gurpila lehertu zaigu eta denbora luzea galdu dugu”, adierazi digu Igorrek.



Labur

GOLFA | SEVILLAKO PEUGEOT SARIA

8. amaitu du Mikel Galdosek bere lehen proba profesionala

Oso pozik zegoen Mikel Galdos aretxabaletarra Sevillan egindako lanarekin. “Profesional bezala nire lehen txapelketa izanda, oso emaitza ona lortu dut”, adierazi zigun kirolari gazteak. Estatu guztiko jokalariek harti dute parte txapelketa horretan eta 8. postuan geratzea ez da gutxi.

Sevillako Peugeot sariak hiru jardunaldi izan ditu. Bigarren jardunaldi eta gero, ebaketa egon zen eta 45 lehiakide bakarrik pasa ziren aurrera.

TXIRRINDULARITZA | PARIS-NIZA

Markelek Paris-Niza proba utzi zuen erorikoaren ostean

“Oso ondo ikusi dut nire burua, sekula baino hobeto. Horregatik pena handia eman dit itzulia uzteak”, esan digu Markelek Irizarrek. Egubakoitzean irteera hartu zuen arren, txirrindulari oñatiarrak lasterketa utzi beharra izan zuen. Izan ere, bi eskuak, ukondoa eta ezkerreko berna guztia erreta ditu Markelek, eguztenean izandako eroretaren ondorioz. Hori dela eta, bost egun bizikletan ibili gabe eman beharko ditu Oñatioko txirrindulariak.

MENDIKO ESKIA | PIERRA MENTA

Aitor Otxoa eta Arkaitz Letamendik Ian ona egin dute

XXI. Pierra Menta lasterketan, Aitor Otxoa eta Arkaitz Letamendi oñatiarrak 48. postuan sailkatu dira. 10:45:18ko denbora behar izan zuen Oñatioko bikoteak lasterketa amaitzeko. Ibarreko beste bikotea, Iban Letamendi eta Fernando Monasteriok 11:40:37ko denbora egin zuten eta horiek 81. postuan sailkatu ziren.

Lau eguneko lasterketa izan da Pierra Menta; Martxoaren 9tik 12ra izan dira han lau eskiatzaileak.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Cadizeko Ea! taldeak Arrasateko plaza bete zuen zapatu iluntzean | 23
- Marky Ramonek, Ramones taldekoak Arrasateko 3.60 aretoan joko du egunean | 27

Larraitz Iñurrategi
Loramendi
elkarteko Gazte
saileko kidearekin
jardun dugu | 26

BALLET BIARRITZ JUNIOR



Koreografia garaikideekin ireki zuten ikuskizuna. Konposizio ausartak aurkeztu zituzten lehen zatian.

JOSETXO ARANTZABAL

BALETA I 'TXIMELETA' IKUSKIZUNA AURKEZTU ZUTEN ELGETAKO KAFE ANTZOKIAN

Pieza klasikoetatik egungo dantzara, euskal baletaren geroa erakusteko

*Profesional
bilakatzea
helburu
dutelarik,
Biarritz Junior
baletak dantza
ikusleengana
gerturatu eta
dantzari gazteak
trebatzea bilatzen
du, Euskal
Herritik irteteko
beharrik gabe*

Jon Berezibar

Balet ikuskizunaren ideiak makinatxo bat herritar batu zituen domeka ilunkaran Espaloian. Donostiatik Ballet Biarritz Junioerreko neskak etorri ziren, etorkizuneko dantzaren promesa eta euskal baletaren esperantza ere badirenak. Lehen promozioko ikasleak dira ikuskizuna egin zuten neska gazteak eta emaitza ikusita ez dute ordu gutxi egin mintegian lanean.

Tximeleta izeneko ikuskizuna izan zen aurkeztu zutena, irailaz geroztik prestatzen ibili direna, eta hasiberriak izateko pieza nahiko korapilatsuak dantzatu zituzten. Tanya Tagaq eskimalearen eztarriko soinuekin egin-

dako konposizioekin ireki zuten ikuskizuna, Gael Domenger konpainiako dantzariaren koreografiarekin. Erritmo sinkopatuekin dantza garaikideko pieza bikaina dantzatu zuten neskek. Ostean, txalaparta hotsekin, mugimendua bihurriago egin eta dantzariak oholtza gainean garbi utzi zuten euren moldagarritasuna. Talde gaztea da baina ziurtasunez ematen dituzte urraskak, inondik ere.

ERREPERTORIO KLASIKOA

Koreografia garaikideak bazterutzita balet klasikora jo zuten ikuskizunaren bigarren zatian. Saint Saensen musika errromantikoa oinarri, *Zisne baten heriotza* izeneko pieza dantzatu zuten,

Thierry Malandain, konpainiako zuzendariaren koreografia batekin. Musika ezin hunkigarrriagoa izanda, zisneen dotoretasun berarekin defendatu zuten

**Batez ere pieza
klasikoetan frogatu
zuten jasotzen ari
diren hezkuntza**

**Musika eta
koreografia
aukeraketa bikainak
izan ziren**

koreografia neskek. Amaitzeko, Ravelen *Bolero* aski ezaguna dantzatu zuten.

Pieza klasikoetan erakutsi zuten dantzariek formakuntza sendoa jasotzen dabiltzala. Segurtasunarekin baina koreografietan behar den iaiotasunarekin defendatu zituzten euren mai-suen konposizioak. Mintegiak ematen duen lehen harrobia da eta etorkizunerako esperantza asko dagoela ere esaten dute aditurek. Horrez gain, garrantzitsua da konpainia baleta ikusleengana gerturatzeko egiten dabilen ahallegina. Euskal Herri osotik dabiltsa biran eta ez diente muzin egiten herri txikiak eszenatokie. Horrek asko dio euren alde eta eskertzekoa ere bada.

BALLET BIARRITZ JUNIOR

FILGI CLAVERIE | BIARRIZKO BALETAREN KUDEATZAILEA

"Kanpora jo ohi duten euskal dantzariak lortu nahi ditugu"

Jon Berezibar

Baleteko dantzariekin batera, batetik bestera dabil Filgi Konpainiaren ikuskizunak jarraitzen. Lan erritmo bizia da dantzariekin daramaten baina emaitza ere ikusgarria dela dio berak.

Bidasoako bi aldeetako dantzariekin osatu duzue taldea. Apropos ipini duzue egoitza Donostian?

Izatez iparraldeko konpainia gara eta handik diru asko jasotzen dugu dantzarako, baina oraingo honetan gure garapena hegoaldean ere gauzatu gura genuen. Horregatik sortu dugu erakunde hau hegoaldean. Agian aurten lortuko dugu finantzazio iraunkorra proiektuak emaitza onak lortu dituelako: gazte konpainia sortua da, Donostian sensibilizazio zen-troa badugu, mintegi asko antolatzen ditugu eta urtean 500 pertsona baino gehiago pasatzen dira bertatik. Desafio garrantzitsua zen baina sei urteren buruan uste dut urrats asko egin ditugula eta oinarriz sendoa dugula Gipuzkoan; itxaropentsua da gure proiektua.

Antolatzeko zailtasun berdinak izan dituzue dantzariak aurkitzen?

Egoera nahiko bitxia da. Dantzari eta akademia oso onak daude baina tamalez ez dago hezkuntza erregulaturik eta edozein ikaslekin dantza ikasketekin aurrera egin nahi izanez gero atzerrira jo behar du, Madril, Bartzelona edo Parisera. Azkenean guretzat oso zaila da, dantzari onak ez daudelako hemen, kanpoko beste konpainiatan daude. Gure lana ere horida, kanpora jotzen duten ikasleei jakinaraztea gure proiektua hemen dagoela. Gure kezka nagusia da hori. Orain iruditzen zait gure proiektua aski ezaguna dela eta ziur artista mailan bigarren promozioan gehiago etorriko direla. Gure helburua harrobia hemen



JOSETXO ARANTZABAL

egitea da bitartekoak eta baldintzak baditugu-eta. Harrobia, berez, badago atzerrian euskal dantzari asko arrakasta izaten dabilzala badakigu-eta.

Alor profesionalerako zubi lana ere egitea da helburua, ezta?

Ikasleek kontserbatorioan ikasten dute dantzan baina ez dakte eszenatoki batean lan profesionala egiten. Hori formakuntza profesionalaren bidez soilik ikas dai-teke. Oraintsu dantzariekin buruz

"Ofizioa ikasi ahal izateko eszenatoki gainean egon behar dute dantzariekin"

buruko elkarriketak egiten hasi gara eta gehien azpimarratu digutena hori da, eszenatoki gainean ikasitakoak egundo ez lituzketela ikasiko akademietan, ofizioa horrela ikasi dutela, publikoaren aurrean. Guk hiru hilabetean 20 emanaldi egin ditugu. Dantza konpaina batentzat inbertsioa da, urte batzuk geroago ikusten dena.

Hortaz, dantzari gazteentzat gogorra izango da, ezta?

Benetan zaila da. Ezarritako erritmoari eustea zaila egin zaie-la aitorru digute dantzariekin elkarriketan. Kontutan izan behar da astean bost egunez eta egunean 7 ordu egoten direla prestatzen eta horretaz gain emanaldiak ditutte asteburuetan. Baino hori da profesionalen erritmoa eta ikasteko modu bakarra.

• ORAINDIK IKASLE, BAINA PROFESIONALEN SERIOTASUN BERBERAREKIN LANEAN



DANTZA GARAIKIDEA. Gogor ekin eta Gael Domenger irakaslea-ren koreografia garaikideekin hasi ziren. Musika eta dantza auke-raketa ausarta izan arren, oso interesgarria da euren proposame-na, indartsua eta ikusgarria aldi berean.



DOTOREZIA KLASIKOA. Pieza klasikoetan erakutsi zuten benetan profesional bilakatu daitezkeela etorkizun hurbilean.

• ALDE BATERA UTZITA DAGO BAleta?



JONE ETA BEA |
ELGETA



ESTHER |
ELGETA

"Baleta, nahiz eta gutxiengo batek egin gainontzeko dantzak moduan sustatu behar da"

"Baleta ikusteko aukera handirik ez dugu izaten eta animatu egin gara, Elgetara etorri direla aprobetxatuz. Edozein dantza mota gustatzen zait eta baleta bada ere sustatu egin behar den gauza bat dela iruditzen zait. Alabari ere gustatzen zaio dantza egitea baina euskal dantzak gehiago. Dantza, kultura ekintza moduan bultzatu behar da".

"Polita da Elgetara ere baleta etorri ahal izatea"

"Baleta gustuko izan arren oso aukera gutxi izaten da bertatik bertara ikusteko. Musika asko gustatzen zait eta horregatik dut gustuko baleta ere. Polita da Elgetan ere hori ikusteko aukera egotea".



JONE, ANE ETA MAIALEN | ELGETA

"Guri gehien-gehien euskal dantzak eta dantza egiteko musika gustatzen zaigu, baleta baino gehiago"

Heldu bezain laster lehen lerroetako aulkia betetzera abiatu ziren ziztu bizian hiru neskatilak. "Asko gustatzen zaigu dantza egitea, batez ere dantza egiteko abestiekin". "Ni gainera baleten ibilitakoa naiz", dio Jonek berehala, zer ikusiko zutenaren jakitun. Nagusitan dantzari izan gura ote duten galde egitean inork ez du erantzuten baina hiruei gehien euskal dantzak gustatzen zaizkie. Hala ere, adi-adi jarraitu zuten ikuskizuna.



DENA GERTU. Debozio handia eskatzen du dantzariaren bizitzak. Esaten dutenez, sakrifizioa handia da baina sariak ere horrelakoak dira. Ikuskizuna hasi baino lehenago urduri eszenara igo-tzeko irrikitan harrapatu genituen neskak azken prestaketenan.

MUSIKA | OÑATIKO BITZ TALDEAK HASI ZUEN KONTZERTUA

Trash-metal doinuak ekarri zitzuten gaztelekura Santutxukoek

Non. Oñatiko gazteleku.
Zenbat jende. 60 bat lagun.
Iraupena. Bi ordu eta erdi irauen zuen kontzertua bi taldeen emanaldiekin.

A.G.

Gaueko 11ak pasatxo zirenean hasi zen kontzertua Oñatiko gaztelekuuan. Etxeko Britz taldeak egin zuen lehen saioa eta laster hartu zuten lekukoa Santutxuko Punto de Mira taldekoek.

Trash-metala ekarri zuen Oñatira Bilboko taldeak. Boskotea gustura aritu zen gaztelekuuan, eta nabaritu egin zitzaien. Aingeru (ahotsa), Raul (gitarra eta koroak), Imanol (gitarra), Mikel (baxua) eta Kobelok (bate-

ria) taldeak 2004. urtean kalera-tutako diskoko kantuak eskaini zituen. Kontzertuan, bestalde, abian duten bigarren diskoko zenbait kantu tartekatu zituzten.

"Gustura jo genuen", adierazi digu Santutxuko taldeko kide Mikelek. "Publiko gutxi zegoen, baina oso emana, eta kontzertuetarako ondo prestatua dagoen areto batean gauzak ondo irten dira normalean. Oñatiko gaztelekuaren kasua da".

Prestatzen ari diren 2. diskoko kantuak aurkeztu zitzuten Santutxukoek



Punto de Mira taldeko boskoteak zuzeneko ona egin zuen Oñatiko gaztelekuuan.

BRITZ TALDEA AURRETIK

Etxeko taldeak eman zion zapaturan hasiera gaztelekuko kontzertuari. Britz taldeko mutilak izan ziren giroa berotzeko ardua hartu zutenak eta erakutsi zutenez punk-rocka eta bertsio-


ak egitea dute gustuko. Horrela erakutsi zuten gaztelekuuan egindako ordubete pasatxoko emanaldian. Nabaritu egin zen etxe-ko taldea zela. Oñatiar ugari batu ziren gaztelekuuan Britz taldekoak entzutera eta asko ez ziren San-

tutxuko taldearen kontzertua entzutera gelditu. "Gustura ari-tu ginen", adierazi digu taldeko kide Joxeba Aranburuk. "Jende dezente batu zen gu entzutera eta lagunarteko kontzertua izan zen guretzako".



BERTSOLARIAK | EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA ALDARRIKATUZ

Arrasateko bertso eskolako Maider, Lide eta Itxasok bota zuten agurra zapatu eguerdian Seber Altuben egindako bertso saioan. Emakume baserritar eta artisauen azokaren barruan egin zuten saioa eta gazteen ondotik Jokin Labaien, Ainhoa Agirre-azaldegia eta Andere Arriolabengoa jarraitu zuten bertsotan. Bertso emanaldian emakumearen egoera eta martxoaren 8ko ospakizunak izan zituzten hizpide, Lierni Altuna gai-jartzialeak hainbat egoeratan jarri zituen-eta bertsolariak.



KONTZERTUA | OBLIGACIONES, LOBO ELECTRICO ETA NCC ESPALOA

Luze jo zuen gauak zapaturan Elgetako Kafe Antzokian. 11ak aldera ekin zion kontzertuari Gasteizko Obligaciones taldeak. Ondo aritu ziren, rock lasaia eskainiz. Tolosako Lobo Electrico taldekoek hartu zuten ondoren lekukoa eta ohiko duten ikuskizun kutsua eman zioten emanaldiari. Taula gainera salto egiten azkenak Donostiako Nuevo Catolico taldekoak izan ziren. Euren linean kontzertu oso borobila egin zuten. Lau orduko kontzertua egin zuten hiru taldeek eta 180 bat pertsona batu zituzten.



ION LEIHOAK

P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUA
- ATEAK • ZOLUAK



20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: 945 26 71 73



MUSIKA | FLAMENKO ETA ARABIAR ETA EUSKAL MUSIKA BATU ZITUZTEN EMANALDIAN

Euria gogotik egin arren, jende ugari batu zuten plazan Ea!-k eta Ttakunpak

*Grabatu berri duten 'Un Sentir'
diskoa aurkeztu zuten Ea!
taldeko cadiztarrek*

*Emakumearen Egunaren harira
egin zuten emanaldia Arrasateko
Herriko Plazan zapatu iluntzean*

Monika Belastegi

Flamenko, txalaparta, arabiar musika eta euskal hitzen fusioa. Horixe izan zen zapatu iluntzean Arrasateko plazara hurbildu zirenek entzun ahal izan zutena. Eta ez zen, gainera, jende gutxi batu. Erruz egiten zuen euria, baina hori ez zen eragozpen izan. Iragarrita zegoen, gainera, euria eginez gero gazetxera eroango zutela emanaldia, baina ez zen horretarako beharrik egon. Plaza inguratzen duten tabernetan zeuden herri-tarrendako ere hobe izan zen horrela; izan ere, asko tabernatik irten, aterkia zabaldu eta

han egon ziren Cadizko Ea! taldearen eta Ttakunpa txalapartarien kontzertua entzuten. Eta hori, ordu berean Realaren partidua zegoela kontuan hartuta.

Ia bi orduz egon ziren taula gainean eta gustagarria izan zen egindako kontzertua. Doinuak, gainera, dantzarako aproposak ziren, eta plazan batutakoetako batzuek ez zuten aukera galdu.

KULTUREN BATURA

Un Sentir taldearen laugarren CDa aurkeztu zuten Arrasaten. Flamenko jazzarekin eta mairu-musikarekin lotzen dute lan horretan, eta ukitu rockeroak ere baditu.



JOSETXO ARANTZABAL

Gitarrek, perkusioak, flautak, txalapartak, kontrabaxuak eta ahotsek osatzen dute Ea! taldea.

Aipatzeko da, bestalde, euskal abestutako kantuek ere lekua dutela diskoa, zapatuaren gehitu diote *Un Sentir* lanean, eta izen handiko musikariak

moduan. Horri guztiari, Ttakunpa euskaldunen txalaparta ere gehitu diote *Un Sentir* lanean, eta izen handiko musikariak

batu zaizkie taldearen sortzaileei, *La Monica* abeslariari eta Juan J. Madrera gitarra jotzaileari, hain zuzen ere.

Menchu Gal

Margo erakusketa

Bergarako Aroztegi Aretoan / 2006ko martxoaren 17tik apirilaren 30era

Kirmen Uriberen
“Poesia eta abar”
Apirilaren 1ean, larunbata,
19:00etan

Ordutegia
Asteartetik ostiralera: 18:30-21:00
Larunbatak: 12:00-14:00 / 18:30-21:00
Igandea: 12:00-14:00

Aste Santuko Ordutegi berezia
Apirilaren 13 eta 14an: 12:00-14:00
18:30-21:00
Apirilaren 17an itxita



AROZTEGI
JAUREGIA



BERGARAKO
UDALA

LOWER CLASS BRATS | KUBRICKEK ETA SEX PISTOLSEK BAT EGINGO BALUTE, HAUEK LIRATEKE ILOBAK

Bitxia izan badaiteke ere, badago street-punkerako gogorik Texasen ere

*AEBetatik
etorrira,
txikikerietarako
gogo barik etorri
ziren Arrasatera
Lower Class
Brats bandakoak,
eta jarraitzaileak
piztea lortu zuten
egubakoitzean*

Jon Berezibar

Deskarga elektrikoetan Texaskoak aditu direla gauja jakina da. Lower Class Brats taldekoek, baina, gitarra bidez deskargatzentzute anti-sistema sumin guztia. Era berean, Texas eta aulkien elektrikoak berehala lotu ohi ditugun moduan, punk banda klasikoa bat errazago irudika genezake Londresko lanbroopean Austingo desertu itogarian baino. Hala ere, horrekin ere hausten dute *mukizu* (ingeles *brat*) horiek, eta desertutik bertatik ekarri zuten street-punkik amorratuenetan 3.60 arretora, euriak blaikitua berehala lurrintzera.

Amerikarrak eszenatoki gaineran ezpal berezikoak izan ohi dira eta horretan da Bones Delarge abeslaria ere, oholtzan seguru eta ikusleekiko desafiatzaile. Lower Class Bratsekoentzat bizi-modua ei da punka, sinesbide bat. Profesio horretan, gainera, ikusitakoak ikusita, zeresan handia du *Laranja mekanikoa*-k. Texaskoak izanda harritzeak izan zen street-punk delakora agertzen duten atxikipena, baina rockera egindako kontzesioak gutxi izan ziren.

Oso soinu britainiarra daudute, 80ko hamarkadako punkaren, Sex Pistolsen aldera baina



Texasko desertuan punka ere egin daitekeela erakustera etorri ziren Lower Class Brats bandakoak.

JOSETXO ARANTZABAL

prestakuntza aldetik heterogeneoa da taldekieen lerroketa, inondik ere.

'LARANJA MEKANIKOA'

Asko zor dio taldeak Anthony Burgesssek eta Kubrickek sortutako mundu *ultrabiolentoari*. Euren abestietako gai asko eta itxura bera *Laranja mekanikoa* filmetik hartutako maileguak dira eta nonahi aurki daitezke unibertsorri buruzko errefere-

rentziak. Konbinaketa bikaina, emaitza ikusita, ondo ezkontzen diren munduak dira-eta punkaren eta laranja mekanikoarena,

Street-punka eta
'Laranja mekanikoa'
ditu erreferente
moduan taldeak

bitxikeria estetikoari bakarrik erreparatu gabe.

Oro har, txikikerietarako ez zirela etorri erakutsi zuten eta

fundamentuzko saioa egin zuten. Ikusleek gozatu egin zuten, zalan-tza barik, zuzeneko bikaina daukate-eta Texaskoek. Normalean ez dira lotzen Texas eta punka, gehiago jotzen dute bertako bandek rockaren barruan stonerre-ra eta rock-and-rollera, baina han gutxiengoa badira ere, Arrasaten ziur batu zituztela jarraitzaileak fidelen zerrendara. Amorru guztia helarazi zuten zuzeneko bizi eta indartsuan.

Agressive Combat eta Afontia taldeek egin zituzten irekitze lanak amerikarrendako

Egubakoitzekoak ez zen izan aretoa leporaino betetzeko gaua, jende gutxi ere ez zen batu, baina polito ibili ziren 3.60 arretora joatera animatu zirenak, eta giroa ona izan zen. Itxuren arabera, ikusle gazte-nak arrasatearrak ikustera joan ziren eta nagusiagoak Lower Class Bratsekoen zain geratu ziren.

Anfitrioiek jo zuten lehenengo. Ez zen, beharbada, Aggressive Combatekoen gaurik onena izan, baina borobil ez egin arren zainetan daramaten jeinu bizia ateraz zuten, zalan-zarik gabe. Hala ere, Arrasaten hain bogen dagoen estiloaren

erakusle fidel izaten jarraitzen dute. Jarraitzailerik ere ez zitzaien falta oholtza azpian. Ikuslerik gazteenak talde hori ikustera joan ziren antza, ostekoetan nagusiagoa izan zen-eta lehenengo lerroetan ikus zitekeen jendea.

Hernanitik etorrira, Afontiakoek punk-rock klasikoagoa aurkeztu zuten egubakoitzean. Abeslari berriarekin, Dani, eta disko berria kaleratzearen daukatela, Donostialdetik etorri ohi diren banden soinu ezaguna baino (*Señor No edo NCC*) punk zikinagoa eta *gitarrazalearen* alde egin zuten.



MUSIKA | LUKAS PREST TALDEKO IÑAKI BATERIA JOTZAILEAK ANTOLATUTA EGIN ZUTEN EMANALDIA INKERNU TABERNAN

Bilakaeraren isphilu izan zen Master River taldea barikuan Eskoriatzan

Non. Eskoriatzako Inkernu taberna.
Zenbat jende. 70 bat lagun.
Iraupena. Bi ordu inguru.

Monika Belastegi

Master River hirukoteak –Unai Azkarate (gitarra eta ahotsa), Mikel Azkargorta (baxua) eta Fer Laskurain (hamabi sokako gitarra)– jarri zuen giroa egubakoitzean Eskoriatzan. 23:30 aldera hasi zuten Inkernu tabernako emanaldia eta bi bat orduz jardun zuten atsedenik hartu gabe. Askotariko doinuak egin zituzten: eurek sortutakoak, *Ezautzen gaittuk, Irtenbiderik Gabeko Autobideak* eta *Betiko Bluesak*, esaterako. Eta baita horren gustuko dituzten taldeen

Hurrengo emanaldia
Soraluzeko
gaztetxean egingo
dute hilaren 17an

bertsioak ere: Van Morrisonek Them taldearekin jotzen zuen *Stormy Monday* edo Bo Didleyren *Before you accuse me* ezagunak, besteak beste.

Ohi duten moduan doinu lasaiagoekin hasi zuten emanaldia eta kontzertuak aurrera egin ahala bizi joan zen bergarren erritmoa.

BILAKAERAN DAGOEN HIRUKOTEA

Hirukotearen rock-and-rollarekiko zaletasuna ezagututa, entzu-leetako batzuk horren bila joan ziren egubakoitzean Inkernu tabernara. Hala eta guztiz ere, bilakaeran dago hirukotea, estiloa aldatzan doaz eta hiru musikariek abiatu berri duten Master River proiektua orain arte izan dituztenak baino lasaiagoa da, akustikoagoa. Zeresan handia du horretan hamabi sokako gitarrak, kutsu errromantikogoz janzen ditu doinuak.

Anekdotarik ere izan zen, Azkarateri azkeneko kantu hitzak ahaztu zitzazkionean, batik bat. Hala ere, entzuleek ezagutu egiten zuten *Midnight special*, eta



JOSEKO ARANTZABAL

Doinu lasaiagoak, akustikoagoak egiten dituzte orain bergararrek.

hitzak gogoratzen lagundu zioten harekin batera abestuz.

HERTZAINAK GOGORATZEN

Emanaldiaren beste une aipagarriek bat izan zen kontzertua

bukatu eta Aitor Osoron gitarra jotzailea eszenatokira igo zenean. Hala, Master Riverrekoak berriz taula gainera igo eta elkarrekin bi kantu egin zituzten, Hertzainak taldearen garaiak gogoratuz.

Bergarako hirukoteak 2005eko udan egin zuen lehenengo kontzertua Master River proiektuarekin. Hurrengo emanaldia hilaren 17an izango da, Soraluzeko gaztetxean.

Ziorla Autoak



Zabaldu berria
Salmenta eta tailer zerbitzua

Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE

Tel: 943 77 01 44



Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteko kideek elkartrukea adostu dute Doneztebeko Burrunba taldekoekin. Herrien arteko ezagutza bultzatzea du

helburu: "Aretxabaleta eta Doneztebe herrien elkartrukea izatea nahi dugu", azaldu digu Larraitz Iñurrategik, Loramendiko kideak. Hala, Doneztebekoek

apirilean Aretxabaletan egingo duten egonaldia antolatzeko dei egiten diete herritarrei gaur egingo duten batzarrera. Loramendiren egoitzan, 19:00etan.

LARRAITZ IÑURRATEGI | LORAMENDI ELKARTEKO GAZTE SAILEKO TEKNIKARIA

"Doneztebekoek gure herria, ohiturak eta herritarrok ezagutzea nahi dugu"

Monika Belastegi

Elkartrukea antolatu nahi duzue Doneztebeko Burrunba taldearekin.

Aspalditik geneukan halako zerbaitegiteko gogoa, iaztik gabilta ideiari bueltak ematen. Gure asmoa zen beste herri batetik hartu-emananetan jartzea harremana sortzeko. Hala, ekintza batzuen inguruan jende ezberdina batzeko eta ezagutzeko aukera izateko.

Zergatik Doneztebeko Burrunba taldea?

Gauzak zehazten joateko, lehenik eta behin elkartruke hori zein herrialderen egin pentsatu genuen. Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba baztertu egin genituen antzekoak garelako eta gure artean ere ezagunagoak. Iparraldearekin ere pentsatu genuen, baina, azkenean, Nafarroa aukeratu genuen. Gero, Interneten-eta ibili ginen begira eta izugarriko deitza pila egin genuen leku apropos baten bila. Azkenik, Donezteben bizi izandako aretxabaletar bat esker, Burrunba elkarrekin harremanetan jarztea lortu genuen.

Baina imajinatzen dut aukeratu-tako herriak baldintzaren batzuk bete beharko zituela. Euskalduna izatea, esaterako.

Bai. Harremanetan jarritako elkarteen, Burrunba esaterako, euskararen inguruan mugitu behar zuten. Euskararenak ziuratuta egon behar zuen. Izan ere, euskara elkartea garen heinean euskara beti hartzen dugu kontuan.

Eta Burrubakoei elkartrukearen esan zenietenean, nola hartu zuten?

Hasieran harritu egin ziren. Eta gero, batzarrean eztabaibaitu ondoren, deitu ziguten gure ideiarekin bat zetozela esanez. **Ze izaera du Burrunba taldeak? Nortzuek osatzen dute?**

Hainbat euskal talde batzen dituen elkartea da. 20 eta 40 urte bitarteko lagunek osatzen dute eta Doneztebe inguruko jai ia gehienak antolatzeaz arduratzen dira.

Zelako elkartrukea antolatu nahi duzue?

Argi laga nahi duguna da elkartrukearen ekimena gurea, Loramendirena bada ere, ez dugula nahi Loramendiren eta Burrunbaren arteko elkartruke hutxa izatea; Aretxabaletaren eta Donezteberen arteko baizik.

Hori dela eta, batzarrak deitu ditugu –dagoeneko egin dugu bat- ahalik eta herritar gehien etorri eta elkartrukea guztiaren artean antolatzeko. Ez duguna



JOSETXO ARANTZABAL

Larraitzek azaldu duenez elkartrukea Loramendik koordinatuko du, baina antolakuntza herritarrek egitea nahi dute.

nahi da Doneztebekoak hona elkartrukerako datozen asteburuan bakarrik parte-hartzea herritarrek. Antolakuntzan ere parte hartzea nahi dugu: bi herrien arteko zerbaitegiteko jardueran. **Honezkerot jarrita izango duzue elkartrukerako data?**

Bai, apirilaren 28tik 30era etorriko dira; 20-25 lagun izango dira eta Galartza etxearen egingo dute lo. Egun horietan nahi diegu Aretxabaleta, gure herria era-kutsi eta haren inguruak, ohiturak eta herritarrok ezagutzen eman. Izan ere, uste dugu etorriko

diren gehienek ez dutela ezagutzen. Horrekin batera hainbat ekintza egin nahi ditugu: mendi bueltaren bat, kirol ekitaldiak... Egindako lehenengo batzar hartzan proposamen asko jaso genituen.

Noiz itzuliko diezue bisita?

Uztail bukaeran joateko esan digute, baina oraindik ez da ziurra. Izan ere, ez da oso data ona, opor bezpera delako. Apirilean, eurak Aretxabaletara datozenean lotuko dugu hori.

Antolaketekin jarraitzeko gaur batzarra duzue eta ahalik eta herritar gehien hurbiltzea da zuen gogoa.

Zenbat eta jende gehiago etorririk ordutan eta aberatsagoa izango da eta ordutan eta egitarau politagoa antolatu ahalik dugu doneztebearrak datozerako.

Bestalde, nahiko genuke batzar horretan hainbat gauza lotu –lantaleak, esaterako–, zeregin ugari egongo da eta.

LAN ESKAINTZA

Bergarako Depor tabernan,
ZERBITZARIA
EDO SUKALDARI
LAGUNTZAILEA
behar da.

Interesatuok deitu:
629 26 88 51

UGARTE

AROZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
• Horma armairuak
• Altzariak • Leihoak • Atekak

ALTZARI DENDA
Ikerlekua zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 / Faxa: 943 76 08 04

"Hainbat euskal talde batzen dituen elkartea da Burrunba; 20-40 urte bitartekoak"

"Apirilaren 28tik 30era bitartean etorriko dira 25 bat lagun eta Galartza egingo dute lo"

"Antolakuntzan ahalik eta aretxabaletar gehienek parte hartzea nahi dugu"

"Gaur, astelehena, egingo dugu batzarra, 19:00etan, eta herritar guztiak gonbidatzen ditugu"

Emakumeak dira ibarreko erakusketetan nagusi, bai egile moduan ere

Bi debagoiendar gaztek, Iraia Artzamendik eta Ane Miren Agirrek, margo, serigrafia eta eskultura erakusketa dute

Leire Kortabarria

Emakumearen Nazioarteko Eguna pasatu den arren, emakumeek jarraitzen dute protagonista izaten egunotan Debagoienean dauden erakusketetan, bai erakusketa horietako gai moduan, bai egile moduan.

Hala, bi emakumek egindako artelanez gozatzeko aukera dugu Arrasateko Harresi erakusketa aretoan joan den egubakoitza ezkerro. Iraia Artzamendi Eskoriatzan bizi den arrasatarrak hamar bat serigrafia eta lumatzox eta tintaz egindako 40 bat lan batu ditu, eta Ane Miren Agirre aretxabaletarrak, hiruzpalau eskultura. Iñaki Bastarrikak poesia

batzuk egin dizkie erakusketarako. Bi artista gazte horien erakusketa hilaren 26ra arte egongo da zabalik.


Arrasaten ere, Emakume Txokoan, martxoaren 8ko kartel lehiaketara aurkeztutako 28 lanak daude ikusgai. Tarte-an dago irabazlearena ere, noski: Ainara Atorrasagasti 23 urteko durangarrarena.

BI ARGAZKI SORTA

Beste herrialde batzuetako emakumeen egoera hartzen dute aintzat bi argazki erakusketak. Bata, *Ahots propia duten emakumeak*, Latinoamerikako emakumeen gaine-koa, Oñati kultura etxean dago, eta bihar, martitzena, itxiko dute.

Bestea, *Errefuxiatutako emakumea, erbestea eta edertasuna izenburuarekin*, Aretxabaletako udaletxean dago. 53 argazkik osatzen dute erakusketa hori. Bisita ordutegia hau da: 18:00-20:00. Leintz ibarreko hainbat GKEk (ISF, AMS, Harreman, Hiruatu, Serso eta Atxorrotx) eta ACNURek antolatzen dute.

Hitzorduak



MARKY RAMONEK, RAMONES TALDEKOAK, ARRASATEN JOKO DU |

Ramones punk-rock taldearen 30. urteurrena da, eta haren omenezko bira egiten ari da

Ramones taldeko bateria-jotzailea eta abesti batzuen egilea izan zen Marky Ramone. Talde eza- gun haren 30. urteurrena dugu aurten. Hori ospatzeko bira egiten ari da Marky, eta Arrasatera eto- rriko da egunean, hilak 16, 3.60 aretora. Estatu osoan beste hamar hiritan bakarrik joko du.

Markyren aurretik, baina, Ramonesen estiloaren eragina jaso duten Euskal Herriko bi taldek joko dute: Arrasateko Los Cretinos taldeak, disko berriarekin, eta Gasteizko Los Gramtones-ek, Ramonesen bertsioak egiten. Musika jaialdia 21:00etan hasiko da.

ZINEMA I

• Vete y vive filma emango dute Oñatin eta Arrasaten

Gaur, astelehena, izango da film hori ikusteko aukera Oñati kultura etxean, 19:30ean; eta egunean, hilak 16, Arrasateko Amaia antzokian, 20:30ean, zineklub saioan. Frantziak eta Israelek ekoiztutako filma da. Istorioa Etiopian hasten da, 1984an, etiopian juduak Israelera eramateko plan bat hasi denean. Amabatek 9 urteko umea konbenitzitzen du judutarra dela esan eta Israelera bidal dezaten, gosetetik ihs egiteko. Israelen, familia judutar batek adoptatu egingo du.

• La vida es un milagro filma emango dute Aramaion

La vida es un milagro izeneko filma emango dute datorren egubakoitzean, hilak 17, Aramaiko kultura etxean, 22:00etan. Emir Kusturicak zuzendutako film horrek *Luca* izeneko ingenari serbiarra-ren istorioa kontatzen du. Bosniara joan da bizi izatera, eta handik gutxira, gerra hasiko da. Emazteak utzi egiten du eta semea frontera bidaliko dute. Handik gutxira, neska musulman bat zaintzeko aukeratuko dute *Luca*, eta berarekin mai- teminduko da. Baina halako baten, neska semearengatik trukatuko duela esango diote.

IKUSKIZUNAK I

• Malawin bizikletan egindako bidaiaren kontakizuna

Malawin zehar bizikletan ibili zen lagun talde bat. Hor aterrako diapositibak erakutsi eta bidaia kontatuko dute egunean, hilak 16, Aretxabaletako udaletxe zaharrean, 19:00etan. • Sexmetraia lehiaketako filmak emango dituze

Arrasateko Sexologia Zerbitzuak iaz antolatutako Sex-

metraia lehiaketako filmak emango dituzte martxoaren 31n Aretxabaletan. Yera Sanchez aretxabaletarraren lan bat ikusteko aukera egongo da, horien artean.

MUSIKA I

• Bergarako musika bandak kontzertua egindo du

Bergarako Udal Musika Bandak kontzertua egindo du domekan, hilak 19, pilotalekuaren, 12:30ean.

• Denial taldeak Phobia diskoa kaleratu du

Denial death-metal melodiko taldeak *Phobia* izeneko diskoa kaleratu berri du. Arrasateko eta Aretxabaletako lagunek osatzen dute Denial.

DEIAK I

• HUHEZIKO Literatura Astea hasteko mahai-ingurua

Literatura Astea hasiko da Mondragon Unibertsitateko

HUHEZI fakultatean. Zazpi bekatu nagusiak dira aurten- go gaia, eta asteko lehenengo ekitaldia mahai-ingurua izango da: *Bekatua eta haragikeria*, hilaren 17an, egubakoitza, Arrasateko kultura etxean, 19:00etan. Aizpea Goenagak, Iñigo Lamarck eta Jabier Mugurutzak egingo dute berba, Ana Urkizak moderatuta.

LEHIAKETAK I

• Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketan parte hartzeko

Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketan parte har daiteke, eta gaur, astelehena, da izena emateko azken eguna. Horretarako, Euskal Kantuzaleen Elkartera bakarlarri edo taldearen fitxa teknikoa bidali behar da. Hau da helbide elektronikoa: posta@kantuzale.net. Argibideetarako, deitu 943 59 33 02 teleforora.

• 21. Koldo Eleizalde lehiaketak deitu dituzte

21. Koldo Eleizalde lehiaketan parte hartzeko aukera dago apirilaren 28ra arte. Bergarako Udal Euskara Zerbitzuak antolatu ditu, ipuin, bertsio, komiki-tira eta ipuin-kontaketa edo antzerki kategoriatan. Komiki eta bertsoen sailetan, Debagoieneko edozeinek parte har dezake; gainerakoetan, bakarrik Bergaran jaio, bizi edo lan egiten dutenek.

Labur

Oscarretan saritutako 'En la cuerda floja' filma emango dute

En la cuerda floja, Johnny Cash musikariaren gaine-ko filma, eman- go dute gaur, astelehena, Arrasateko Amaia antzokian, 20:30ean. Reese Witherspoon-ek emakumezko aktore onenaren Oscarra ira- bazi berri du film horretako lanarengatik.

Oscarra irabazi ez, baina izendatuta izatea lortu zuten beste bi film emango dituzte astean: *El hundimiento* etzi, Espaloia antzokian, Hitlerren azken orduen gaine-ko, eta *La historia del camello que llora* Oñati kultura etxean, egunean, hilak 16.

Mendekoste jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Bergarako Mendekoste jaietako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Bergaran bizi edo erroldatutako edozeinek parte har dezake. Irabazleari 600 euro emango diote. Iridia 46x61 centimetroko izango da, eta bertikala. Derrigorrezko testua hau- xe da: *Pentekoste jaiak 2006 Bergara*. Lanak Bergarako kultura etxera eraman behar dira apirilaren 28a baino lehen.

Jaien antolakuntzan dihardu Udalak, eta bihar, martitzena, Bideberriko kontzertuen gaine-ko bigarren batzarra izango da.

Asier Altunaren bi film labur emango dituzte gureko bi herritan

Euskarazko Film Laburren Zirkuitua Debagoienera iritsiko da laster, eta aurten emango dituzten bost film laburretatik bi Asier Altuna bergararrak zuzendutakoak dira, Telmo Esnal donostiarra- rrarekin batera: *Txotx eta 40 ezetz*, hain zuzen. *Sarabe* (Beatriz de la Vega), *Haragia* (Begoña Vicario) eta *Hauspo soinua* (Inaz Fernandez) filmekin batera, Arrasaten eta Oñatin emango ditu- te biak, martxoaren 23an eta apirilaren 6an, hurrenez hurren. Altuna ezagun egin zen *Aupa Etxebeste!* filmarekin.

Eguraldia

Astelehena, 13

Martitzena, 14

Eguaztena, 15

Eguena, 16

Egubakoitza, 17

Atertu egingo du azkenean, eta eguzki izpiak lagun izango ditugu

Asteburu euritsuaren ondotik barealda etorriko da asteon. Bihar, astelehena, goizean goizetik lanbroa eta lainoa izango baditugu ere egun altxatuko du. Ez du euririk egingo eta tenperatura egonkor mantenduko da. Hodeiak desagertzen joango dira astea aurreratu ahala eta haizea ibiliko bada

ere oso ahula izango da. Egunean arte adituek ez dute eguraldi aldaketa nabarmenik aurreikusten. Egubakoitzetik aurrera, ordea, hodeien itzuleria iragartzen dute. Hodeiak zeruan nagusituko diren arren ez dute euririk botako. Tenperaturak, gainera, gora egingo du nabarmen.

Guardiako farmaziak**ARRASATE**

Astelehena, 13	Irizar	Erguin kalea, 11 (943 79 12 39)
Martitzena, 14	Amezua	Santamarina, 32 (943 79 09 74)
Eguaztena, 15	Morales	Araba Etorbidea, 14 (943 79 18 65)
Eguena, 16	Ruiz Perez	Maalako Arrabala, 31 (943 79 14 09)
Egubakoitza, 17	Zabala	Zarugalde, 42 (943 77 16 30)

BERGARA

Astelehena, 13	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Martitzena, 14	Camacho	Oixondo, 4 (943 76 16 87)
Eguaztena, 15	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
Eguena, 16	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Egubakoitza, 17	Espelta	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)

ONATI

Astelehena, 13	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 11 28)
Martitzena, 14	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 11 28)
Eguaztena, 15	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)
Eguena, 16	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)
Egubakoitza, 17	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)

ARETXABAleta

Astelehena, 13	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Martitzena, 14	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguaztena, 15	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguena, 16	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Egubakoitza, 17	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)

Telefono jakingarriak

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larial)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Oasun Etxeak	
Arrasateko Ospital	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udalzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

GARRAOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 08
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udalzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak**BONOLOTOA**

Astelehena, 6
4 • 10 • 22 • 24 • 41 • 47

Osagarria: 21 | Itzulketa: 5

Martitzena, 7

5 • 9 • 14 • 19 • 28 • 45

Osagarria: 12 | Itzulketa: 3

Eguaztena, 8

2 • 11 • 30 • 39 • 46 • 49

Osagarria: 15 | Itzulketa: 3

Eguena, 10

3 • 10 • 17 • 19 • 20 • 27

Osagarria: 16 | Itzulketa: 8

ONCE

Astelehena, 3 **31.167**

Martitzena, 4 **51.348**

Eguaztena, 5 **52.025**

Eguena, 6 **35.618**

Egubakoitza, 7 **92.777**

Kupoitzarra (086 seriea)

Domeka 12 **36.355**

Kupoitzarra (028 seriea)

Loteria Primitiboa

Eguena, 9

3 • 12 • 13 • 20 • 24 • 32

Osagarria: 21 | Itzulketa: 4

Zapata, 11

9 • 16 • 20 • 21 • 41 • 45

Osagarria: 33 | Itzulketa: 0

Zapata, 11 (Saritzarra)

3 • 14 • 17 • 18 • 38

Itzulketa: 5

Gazte zerbitzuak**EKINTZAK |****• Antzerki jardunaldiak.**Martxoaren 3tik apirilaren 3ra
Eibarko 24. Antzerki
Jardunaldiak.**IKASTAROAK |****• Elektromekanika.** Fondo
Formacion Euskadi.Elektromekanika ikastaroa:
CNC makina-erreminten
prestakuntza-programazioa
langabeentzat.

Epea: martxoak 24.

• Sorospen ikastaroa.Martxoaren 20tik
apirilaren 7ra arte.
Astelehenetik egubakoitzera
19:00etatik 21:00etara,
Donostian.
Epea: martxoak 19.**• Infografista.** Baliabide
digitalen infografista ikastaroa
langabeentzat Andoainen.

Martxoaren 22tik azaroaren

22ra arte. Epea: plazak
bete arte.**LEHIAKETAK |**

• **Hitz ederrak.** Euskarazko hitz
ederren II. lehiaketa. Hitz
ederrak ondoko webgunean
jasoko dira:
<a href="http://www.aisia.net/piropo/

Zorion agurrak



ARRASATE
Maite Lizundia
Martxoaren 2an, 4
urte. Zorionak!
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagunak.



ARRASATE
Uxue Cabañas
Martxoaren 5ean, 5
urte. Zorionak!
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagunak.



ARRASATE
Josune Garai
Martxoaren 7an, 6
urte. Zorionak!
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagunak.



ARRASATE
Xabi Urtzelai
Martxoaren 13an,
27 urte. Zorionak,
bujias!
Lankideak.



ARRASATE
Leire Presa
Martxoaren 13an,
12 urte.
Zorionak!
Aupa Alabes!



ARRASATE
Markel Zuazabeitia
Martxoaren 13an, 6
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoak.



ARRASATE
**Maren Carmen
Joosten**
Martxoaren 17an,
urtebetze. Zorionak!
Familiaok.



BERGARA
Izar Morillas
Martxoaren 5ean,
10 urte. Zorionak
eta urte askotarako
etxeileen partetik.



BERGARA
Olaia Arriola
Martxoaren 10ean,
4 urte. Zorionak eta
urte askotarako
sendikoen partetik.



BERGARA
Julen Arriola
Martxoaren 12an, 4
urte. Zorionak etxe-
koen eta Anaren
partetik.



BERGARA
Nahia Cid
Martxoaren 13an,
2 urte. Zorionak
aita eta amaren
partez.



BERGARA
Jasone Zabala
Martxoaren 14an, 27
urte. Zorionak eta
urte askotarako
vieji.



BERGARA
Iñaki Aldazabal
Martxoaren 15ean,
2 urte. Zorionak eta
urte askotarako
etxeileen partetik.



BERGARA
Andoni Bretaña
Martxoaren 16an, 9
urte. Zorionak eta
urte askotarako.
Etxeko partetik.



ARETXABAleta
Loreta Isasmendi
Martxoaren 14an,
27 urte. Zorionak eta
urte askotarako.
Unairen partetik.



ARETXABAleta
Kepa Mendieta
Martxoaren 18an.
Zorionak aitaxo!
Muxi handi bat.
Iratzi eta amatxo.



ESKORIATZA
Yaiza Exposito
Martxoaren 12an.
Zorionak Yaiza!
Zare la bonba!
Ekipokoak.



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ASTELEHENKO GOIENKARIaren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!



ESKORIATZA
Maddalen Antuñano
Martxoaren 13an,
14 urte. Zorionak!
Etxeko guztien par-
tetik.

ESKORIATZA
Fernando Raso
Martxoaren 16an
urtebetetzea.
Zorionak Fernan!
Ekipokoak.

ONATI
Marta Leturia
Martxoaren 13an
urtebetetzea.
Zorionak! Goienako
langileen partetik.

Hildakoak

Sergio Crespo Lopez
Arrasaten, martxoaren 10ean.
92 urte.

Jose Maiztegi
Ariznabarreta
Oñatin, martxoaren 10ean. 81 urte.

Joseba Mugika Zubeldia
Bergaran, martxoaren 10ean.
79 urte.



ESKELAK
ASTELEHENKO GOIENKARIAN
85 euro
943 25 05 01

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo
senitartekoak zoriondu
nahi baditzu,
ARRASATE IRRATIAK
egunero ematen dizu aukera hori.

Egunero,
zorion agurren tarte
ARRASATE IRRATIA

FM107.7



Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Jaiotakoak



Deiane Portale Gonzalez
Aretxabaleta • 2,565 Kg. Martxoak 6.
Gurasoak: Felix (Azkoitia) eta
Jaione(Aretxabaleta). Argazkian: Deiane
amona Maria, aita eta amarekin.



Maria Mafrei Hurtado
Arrasate • 3,390 Kg. Martxoak 7.
Gurasoak: Daniel (Uruguay) eta Maria
Angeles (Arrasate). Argazkian: Maria ama-
ren besoetan aita ondoan duela.



Aratz Casado Uriarte
Arrasate • 2,860 Kg. Martxoak 8.
Gurasoak: Jabi (Arrasate) eta Amaia
(Arrasate). Argazkian: Aratz jaioberria
bapo lo amarekin besoetan.



Aitor Arzelus Perez
Bergara • 3,625 Kg. Martxoak 8.
Gurasoak: Gotzon (Arrasate) eta Susana
(Soraluze). Argazkian: Aitor lo Markel anai
nagusia ondoan duela.



Maider Doman Casatorre
Arrasate • 3,150 Kg. Martxoak 9.
Gurasoak: Jabi (Arrasate) eta Sonia
(Arrasate). Argazkian: Maider argazkirako
prest izeko Marilu eta amama Diorirekin.



Maria Borislavova Hristova
Bergara • 3,540 Kg. Martxoak 10.
Gurasoak: Rorislav (Bulgaria) eta Pelagiya
(Bulgaria). Argazkian: Maria bapo lo ondo-
an bere ahizpa Julianarekin.



Markel Etxeberria Aiestui
Arrasate • 3,400 Kg. Martxoak 10.
Gurasoak: Xabier (Arrasate) eta Mertxe
(Arrasate). Argazkian: Markel gozo-gozo
lo bere amaren besoetan.



Xabier Carrascal Maruri
Arrasate • 3,350 Kg. Martxoak 10.
Gurasoak: Oscar (Arrasate) eta Leire
(Arrasate). Argazkian: Xabier bere
kumatxoan bapo lo.



Kattin Malbadi Ugarte
Oñati • 3,460 Kg. Martxoak 11.
Gurasoak: Ismael (Oñati) eta Ainhoa
(Oñati). Argazkian: Xabier bere
kumatxoan bapo lo.



Olaia Anduaga Txintxurreta
Oñati • 3,880 Kg. Martxoak 11.
Gurasoak: Rafael (Oñati) eta Irati
(Oñati). Argazkian: Olaia amama
Doritarekin batera.

Gaur irratian**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:35

'Sua' filmaren gainean berbetan

Sua filma dela eta, aste bukaeran Maulen izandira grabaketak egiten. Hainbat debagoiendar ere izan dira han, eta Unai Igartua ekoizleak horren berri emango digu. Kirolak ere bere tartea izango du, astero bezala, 11:10 inguruan.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Eguerdiko saioa' | 12:15

Ukrainako eta Saharako haurrak hartzeko deia

Udan haurrak hartzeko bi deialdi egin dituzte bi elkartek: Banoia Chernobilekin eta Sahararen aldeko Nubi elkarretek, hain zuzen ere. Gaurko irratsaioan talde bietako ordezkarriak izango dira Miren Urkiolarekin berbetan, eguerdian.

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

Mutrikuko kaiaren egoera aztergai**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

Joseba Azkarragari elkarritzeta**Loiola Irratia**

FM 99.8

'Kalez kale' | 11:30

Euskal kantu txapelketa abian martxoaren 18an**GOITB programazioa**

Astelehena, 13

**'Harmailatik' saioan kirolari gainbegiratua****21:15**

Ibarreko taldeen ibilibideari gainbegiratua, Julen Iriondo kazetariaren eskutik. Partiduetako irudi ikusgarrirenak eta protagonisten iritzia.

Martitzena, 14

**Debagoineneko albisteak****22:15**

Egunean zehar ibarrean gertutakoak jarraitu ahal izango ditugu GOITBko albistegiei esker. Deiane Arrieta eta Julen Iriondo dira aurkezleak.

Eguaztena, 15

**'16 mm', film laburrendako tarteoa****22:15**

Amagoia Lasagabasterrek aurkezturiko saioan, oraingo astean Nekane Elizondoren *Itsas arima* izenburuko film laburra ikusi ahal izango dugu.

Eguena, 16

**Olatz Pagaldai 'Didjerido' saioan****13:20 eta 20:15**

Olatz Pagaldai eskoriatzarra izango da *Didjerido* saioko protagonista nagusia. Dearru Beltzak taldearekin umeenda-ko ikuskizunak egiten dabil.

Egubakoitza, 17

**Asteo gaiak 'Behazulo' saioan****22:15**

Goiatz Aranak intereseko gaiak ekartzen dizkigu astero *Behazulo* saioan. Asteak eman dituenak izango ditu aztergai, hainbat gonbidaturekin batera.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Behazulo.
14:15 Eltze beroa.
14:30 M1.
14:35 Gezi-bideak.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:00 Munduari bueltaka: Ameriketako Estatu Batuak aztergai.
15:30 M1. Eguraldia eta burtsa tarte.
15:35 Sendabelarrak.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Ilunpean.
16:15 Klip@k.
16:30 M1.
16:35 Gezi-bideak.
16:45 Albisteak.
17:00 Jazz.
17:30 Danbaka.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Erreportaje: Tandem biziaketa.
18:15 Munduari bueltaka: Ameriketako Estatu Batuak.
18:45 Albisteak.
19:00 Klip@k.
19:15 16 mm.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak.
20:45 Albisteak.
21:15 Ilunpean.
22:15 Marrazki bividunak.
22:45 Albisteak.
23:15 Jazz zikloa: Elgetako gauak.
23:45 Berriak.
00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Jazz mintegia.
14:15 Zera dio.
14:30 M1.
14:35 Gezi-bideak.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:00 Elkartasun bideak.
15:30 M1.
15:35 Sendabelarrak.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Behazulo.
16:15 Klip@k.
16:30 M1.
16:35 Gezi-bideak.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:00 Berriare.
17:30 Zera dio eta Motzean: Maixa Lizarrabar eta Julio Ibarra.
17:45 Gaurkoak.
17:47 16 mm.
18:15 Teknopolis.
18:45 Albiste aurrerapena.
19:00 Klip@k.
19:15 Didjerido.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak.
20:45 Albisteak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Berriak.
22:15 16 mm: Nekane Elizondoren *Itsas arima* film laburra.
22:45 Albisteak.
23:15 Erreportaje.
23:45 Berriak.
00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Musika saioa.
14:30 M1.
14:35 Gezi-bideak.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:00 Teknopolis.
15:30 M1.
15:35 Sendabelarrak.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Behazulo.
16:15 Klip@k.
16:30 M1.
16:35 Gezi-bideak.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:00 Jaun ta Jabe.
17:30 M1.
15:35 Sendabelarrak.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Jazz zikloa. Elgetako gauak.
16:15 Klip@k.
16:30 M1.
16:35 Gezi-bideak.
16:45 Albisteak.
17:00 16 mm.
17:30 M1.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Iparrorratza: Kongo.
18:45 Albiste aurrerapena.
19:00 Klip@k.
19:15 Erreportaje.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak.
20:45 Albisteak.
21:15 Jaun ta Jabe.
21:45 Berriak.
22:15 Didjerido: Olatz Pagaldai.
22:45 Albisteak.
23:00 Berbaire.
23:45 Berriak.
00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Musika saioa.
14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak.
14:35 Gezi-bideak.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:00 Iparrorratza.
15:30 M1.
15:35 Sendabelarrak.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Didjerido.
16:15 Klip@k.
16:30 M1.
16:35 Gezi-bideak.
16:45 Albisteak.
17:00 Berbaire.
17:30 Eltze beroa.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Teknopolis.
18:45 Albisteak.
19:00 Klip@k.
19:15 Jazz zikloa.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak.
20:45 Albisteak.
21:15 Behazulo.
21:45 Berriak.
22:15 Ilunpean.
22:45 Albisteak.
23:15 16 mm.
23:45 Berriak.
00:15 Emisio amaiera.

Kamera aurrean

"Zorionez, grebak ez du arrakastarik izan. Txarrena da piketeen eraginez komertzio txikiek itxi egin behar izatea"

ITZIAR LAMARAIN |
PP-KO ZINEGOTZIA ARRASATEN
Berriak, 2006-03-10



"Greba egiteko eskubidea bidezkoa da, baina indarkeriarekin eta presioarekin ez da ezer lortzen"

ANDER RODRIGUEZ |
EZKER BATUKO ZINEGOTZIA ARRASATEN
Berriak, 2006-03-10

Mugarri Alkesa saskibaloi taldea Leioan

'HARMAILATIK':**Astelehenean, martxoaren 13an, 21:15ean**

Domekan Mugarri Alkesa saskibaloi taldeak Leioan jokatutako partiduari gainbegiratua, Julen Iriondo kazetariaren eskutik.

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!

Martxoaren 13a: 079 zozketa

ASTELEHENeko GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, martxoak 13, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan dator. Zu tartean bazaude, zorionak!

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenean egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!

Bi gonbidapen ELGETAKO ESPALOIAN izango den BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOAren kontzerturako


(saridun bakoitzari bina emango zaizkio).

- Jone Ugarte Arregi (Eskoriatza)
- Itziar Zabaleta Mujika (Bergara)

Sei gonbidapen EIBAR-NASTIC TARRAGONA futbol partidurako (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Paki Arana Pagaldai (Arrasate)
- Jose Ignacio Barrena Aiastui (Oñati)
- Alexander Odriozola Aldazabal (Bergara)
- Eider Lete Elorza (Arrasate)
- Jose Jabier Etxaniz Apaolaza (Antzuola)
- Iñaki Mendizabal Riviere (Arrasate)

Otsailaren 20ko sariak



- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).



DONOSTIAKO AQUARIUMa

bisitzeko bi gonbidapen.
(saridun bakoitzari bina emango zaizkio)

Hamarrekoa

ARANTXA GURMENDI | AKTOREA

“Hortentxi askotan joaten da Benidormera, baina niri ez zait batere gustatzen”

Oihana Elortza

1. Ospatu duzu Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna? Urtero ospatzen dut, afaria egiten dugu lagunartearen. Aurten, Goenkale-n parte hartzen dugun emakumeen arteko afaria egin dugu.

2. Ile apaindegia bat zabaltseko beste ikasi duzu Arralden? (Barre). Ez, noski! Itxurak egiten besterik ez dut ikasi.

3. Urdaiazpikorik eman dizu Mihiluze-ko talderen batek puntuak lortzearen? Ez, eta ezta emango ere. Ez da hori nire eginbeharra. Hortentxi izan naiz urte luzeotan eta lan berri honekin hori aldatu nahiko nuke nolabait. Publikoarentzako berriz ere ni izan nahiko nuke.

4. Noiz egon zara azkenekoz Saharan? Behin bakarrik egon naiz Saharan. 2005eko abenduan joan nintzen. Dokumental bat presatzen ari naiz eta lan horretarako irudiak grabatzera joan nintzen. Elkarrizketak ere egin genituen. Bidaia oso interesgarria izan zen hura.

5. Ze aukera dituzue aktoreek Euskal Herrian? Baditugu, baina ez, garen aktore piloarentzako besete. Telebistan eta antzerkian gabilza gehienbat, baina orokorrean ez da lan askorik sortzen. Zinemaren kasuan, esaterako, betikoa gertatzen da. Hemendik jasotzen dute dirua zuzendari askok, baina Espainiako Estatuko aktoreekin egiten dute lan gehienetan.

6. Zenbat antzezlan egin dituzu? Baduzu kutsu-nik? Ez ditut banan-banan zenbatu, baina nire curriculumean garrantzitsuenak azaltzen ditut eta 30 bat agertzen dira. Kutunak bat baino gehiago ditut. Casa de Muñecas eta Los Fusiles de la Señora Carrall dira nire gustukoentako bi.

7. Berriz jaioz gero, zer izango zinateke? Lanbide moduan aktore izan nahiko nuke berriz ere. Bidaia erabili bai. Bidaia amorratua naiz, eta gehiago bidaiatuko nuke.

8. Badator udaberria. Odo-la aldatzten zaizu? Odo-la ez dakit, animua bai. Ni eguraldi onak eta eguzkiak pitztu egiten naute.



JOSETXO ARANTZBAL

Hortentxi esaten diote oraindik ere kalean, baina bestelako aktore lanak ere egiten ditu Arantxa Gurmendi donostiarra. Domenean, esaterako, Arrasateko Amaia antzokian izan zen Neska polifak artasoro alaiak antzezlan egiten: bi kultura ezberdin arteko elkargunea. Ezkerreko eskua lotuta zeukan eta etxearen istripua izan duela esan zigun. Sukaldea erre zitzaiola, hain zuzen.

9. Eta ze eguraldi egiten du Benidormen? Arraldetik askotan joaten zara. Askotan bidaltzen naute, baina ez dakit zergatik. Ez zait batere gustatzen. Aukeran, beste leku batera joango nintzateke.

10. Kulturen elkargune da benetan Euskal Herria? Baldintzak badaude, baina uste dut distanziak jartzen ditugula oraindik ere. Elkarbizitza posiblea da, eta, gainera, komenigarria da.




Biharamuna

Iñigo Biain

Emakume izkutuak

Zapatu gaua, eta beste kontzertu bat Oñatiko Gazteleku. Normalean argi teknikari lanetan izan ohi den Joseba Aranburu taula gainean izan zen bere taldea den Bitz-ekin, eta bestalde, Santutxuko Punto de Mira taldeko mutilak ere izan genituen. Baina emakumerik ez tau-la gainean. Ohitura beharko genuke, baina oraindik ere hutsunea hor dago. Adibide garbi bat: Oñatiko ia 30 rock talderen artean, neska bakarra aurkitu dezakegu, Naiara Sospechosos. Ez al duzue ba emakumeek oholtza atsegin? Badakit ezin dela hain orokorrean hitz egin, hor baitago Virginia Imaz bergararra, emakumearren egunaren biharamunean Gaztelukoko oholtza berera igo eta Modelo clowntrapublicitarialana antzeztu zuena. Modeloak, emakumeak, oholtzak... Ez, ez naiz Cibeles pasarelaz hitz egiten hasiko, gure inguru oholtez eta emakumeek ari bainaiz. Eta, bide batez, ez dut aipatu gabe utzi nahi azkenaldian oñatiarron ahotan dabilen emakume bat: Lourdes Idoiaga alkatesa berria. Agian Andoni Gartzia pixka bat itxaron behar zuen, eta alkatetza otsailaren 23an (data esanguratsu bezain iluna) utzi beharrean, martxoaren 8an egin zezakeen, Lourdes Oñati historiako lehen alkatesa izaki... Historiako liburuetan politagoa geldituko litzateke. Baina horrek ere ez luke oholtza gaineko hutsunea beteko. Non zaude ezkutatuta? Zeren beldur zarete? Tira, aurten behintzat kinto lanean ikusi zaituztegu, eta batzuk poztu egin gara...



Bai, nahi dut.

Ezkontzen gaineko gehigarria, martxoaren 24an, egubakoitzta, Goienkariarekin batera

Etxe hauen laguntzarekin: Mendigoia hotela • Iker sukaldeak • Jean Louis David ileapaindegia • Bea lentzeria • Gemes estetika zentroa • Azul de rizos ile apaindegia • Etxe-aundi jatetxea • Guztiz Eder estetika zentroa • Urkan Irudi Komunikazioa • Lasagabaster • Iparproject • Tamayo • Zubiaga bitxitegia • Gure ametsa jatetxea • Imanol bodas y eventos • Maya jantzidena • Miren Arrieta • Hotel Mondragon • Eguzkitza landetxea • Makatzeta jatetxea • Lasai jatetxea • Sofa-leku • Corte Blanco • Kanela dekorazioa

Goienkaria